

# Arrasoa

1999ko  
Martxoak 26  
445. zenb.



## Karapaixoa Garizumako ohitura

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: J. F. DIAZ DE TUESTA  
KULTURA: IKASTARO GARAIA • KIROL ELKARRIZKETA: J. MAIDAGAN



# OSASUN GIDA

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ..... ☎ 943 77 13 34

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Olarte, 43 behea ..... ☎ 943 79 81 11 / 943 79 81 01

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ..... ☎ 943 79 77 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ..... ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kirolegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- Lorenzo Martin, Rafael Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎ 943 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NÚÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



# Arrasate 2000

**M**ilurtekoa amaitzen ari zaigu. Gaur bertan irakurri dut munduan zehar emakume asko dabilela haurdun geratu nahian, bederlatzi hilabete barru jaioko litzatekeen haurra milurteko zaharrean azkena edo berrian aurrena izan dadin.

Geuk ere aprobeatza dezagun aukera. Milurtekoaren amaierarako bederlatzi hilabete falta direnean —eta, ez ahaztu, udal hauteskundeetarako hiru— Arrasate 2000 egitasmoa egitea proposatzen dizuet, XXI. mendean animoso sar gaitezen.

Arrasateren etorkizunerako egitasmoak ez du zertan orain artekoa guztiz aldatu. Nire ustez, herria ondo antolatuta dago batez-beste, hobekuntzak baino ez ditu behar. Adibidez:

- Etxebizitzak.

Asko garestitu da prezioa eta



Mikel Irizar

**“Nire ustez, herria ondo antolatuta dago batez-beste, hobekuntzak baino ez ditu behar”**

gazteentzat ez dago aukera onik. Diru beltzak eta euroak duten eragina 2002. urtean pasatuko da, baina babes ofizialeko etxebizitzak beharrezkoak dira. Zerrajerako proiektua oso lagungarri izan daiteke. Dena den, kontuan izan behar da azken urteotako jaiotzen eskasia dela eta, 10/15 urte barru etxebizitzak soberan izango direla.

- Trafikoa. Gero eta auto gehiago dago herrian, eta ezinezkoa da denentzat eta bakoitzak nahi duen tokian aparkalekua izatea. Lehenbizi, herri barruan autoak gutxiago mugitu behar dira, Arrasaten apenas dago hamar minutuan oinez egin ezinezko tarterik. Urbanoa ere, noizko? Lantegietara autobusak? Eta gero, autoak geldi egon daitezten lekuak sortu behar dira, aparkaleku handiak auzoetan.
- Kultura Etxea. Honez gero argi dago

Monterronekin asmatu egin zela bere garaian, baina baita ere Monterron txiki geratu dela. Ospitale Zaharraren berrikuntza erabakigarria izan daiteke herriarentzat: gazteen gunea, Arteleku moduko bat artistentzat, talde ezberdinentzako egoitzak... Merezki du proiektua patxadaz aztertzea. Ea bitartean frantziskotarrek in baka lortzen den!

- Musakola. Badirudi oraingoan Mojategi egin egingo dela. Portzieto, zergatik ez orain baino lehen? Egiten bada, Institutua, igerilekua, merkataritza zentrua eta kirolgune handia bilduz, herriko gunerik inportanteena sortuko da Musakolan. Zer gehiagorekin osa daiteke? Nola lortu zatien koordinazioa?

Pentsatzen dut herriaren antolaketarako udal arauak ezartzerakoan, honelakoak eta antzekoak erabiliko zirela. Datorren hauteskunde kanpainaren inguruan hasi gaitezten gai hauetaz arduratzen. Goiko puntuak aitzakiatzat hartu eta orain zuei txanda. Idatz ezazue, esan, eztabaidatu. Milurtekoaren aldaketak indarberriturik arrapa gaitzan. ■

*“Inoiz ez genuen jakin aitzak zer esaten zuen bere amets ozenetan, etxean bera baitzen euskaldun bakarra”*

Jose Mari Velez de Mendizabal

# 1.000

lan istripu gertatu ziren iaz  
Lagun Aroko bazkideen  
artean

Bi langile hil egin ziren, hiru oso larri eta beste 15 larri zauritu ziren. Lan jarduera areagotu egin da eta langile gehiago dabilta, baina argi dago zorrotzago bete behar direla, denon aldetik, segurtasun neurriak.

B A Z E N E K I E N ?

## Jesus Trincado

Nor da Jesus Trincado? Arrasate Pressen 443. aleko Foto zaharrean agertu zen. Montevideon bizi da orain Jesus Trincado Baños mondragoetarra, 91 urte dituela. Cerrajeran egin zuen lan makinak eta erremintak diseinatzen. UGTko bazkide ere izan zen.

1934ko iraultzaren ostean atxilotu egin zuten, beste zortzi lagunekin batera. 18 hilabete egin zituen preso, Frente Popularrak hauteskundeak irabazi arte. Gerra Zibila piztu zenean Arrasaten zegoen. Granadak jaurtitzeko gailu bat diseinatu zuen, baina ez zioten kasu handirik egin. Santoñatik Frantziara pasatu zen txalupa batean. Handik Bartzelonara, Alicantera eta Andorrara joan zen. Kontzentrazio zelai batean ere izan zen. Gerra ostean Uruguayra joan zen eta han bizi da, emaztearekin.



ARKO  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11; Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetaritza:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakalariak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saia, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trutxuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturaren laguntza



## Arrasate

### LANAK

#### SANTA TERESAN

S. Teresan eta Doneztebe Portukon saneamendu lanak.

#### OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

#### KONTZEZINON

Etxeak egiteko lanak.

#### FERRERIASEN


24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak.

#### AGERRE PLAZAN

Plaza berria egiteko lanak hasi dira.


#### SAN ANDRESEN

Larunbatean trafiko mozketak Polmetasa ondoan.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 26**

Eguraldi kaskarra izango dugu oro har. Euria egingo du eta freskatu ere egingo du.



**LARUNBATA 27**

Lainoak izango dira nagusi. Dena dela, ateri uneak nagusituko dira.



**IGANDEA 28**

Hoberantz joko duen arren, lainoak lagun izango ditugu igandean ere.

## Ilargia



**Ilbetea**

Martxoaren 31n, asteazkena, ilbete izango da. Ilargi-joak, adi.

## Mezak

#### Parrokia

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (erdaraz)  
 11:00 Erramu meza (euskaraz)  
 12:30 (elebiduna)

#### San Frantzisko

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (euskaraz)  
 10:00 (erdaraz)  
 11:00 Erramu meza (euskaraz)  
 12:30 (erdaraz)  
 19:00 (elebiduna)

#### Uribarri

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

11:30 Erramu meza (euskaraz)  
 12:30 Erramu meza (erdaraz)

#### San Andres

##### Ostiralean

18:30 (Otoitz ordua)

##### Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)  
 19:00 (elebiduna)

##### Igandean

10:00 (erdaraz)  
 11:00 Erramu meza (euskaraz)  
 12:00 Erramu meza (erdaraz)

#### Santa Teresa

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)


##### Igandean

10:30 Erramu meza (erdaraz)  
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
 12:30 (erdaraz)

#### Santamaina

##### Igandean

12:00 Erramu meza (euskaraz)



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Unai Zubikarai mendizalea hil zen Pirinioetan.
- Osakidetzaren debekua Arrasateko eta Bergarako botikei astean behingo goardia k egiteko.
- Rufina Olasagasti hautatu zuten Ekin Emakume Taldeko lehendakari, bi urterako.



# Ondo deritzozu zenbait moda erakuslek erabakitakoari?

Europako zenbait moda erakuslek erabaki dute 40tik beherako neurririk ez onartzea moda erakusketetan



**Begoña Gonzalez**  
(33 urte)  
Etxekoandrea

Ondo iruditzen zait. Ustedut anorexia kasu asko dagoela eta bide ona iruditzen zait.



**Patricia Ruiz**  
(17 urte)  
Ikaslea

Egokia da. Anorexiaren arazoa konpondu ez da konponduko, baina neurria egokia da.



**Elisabeth Gomez**  
(16 urte)  
Ikaslea

Ados nago. Izan ere, neurri hori baino gehiago duen eta modelo izan nahi duen neska asko dago orain ezin duena.



**Josu Donai**  
(17 urte)  
Ikaslea

Ondo iruditzen zait. Aurrepauzu bat iruditzen zait.



**Josexo Vitoria**  
(43 urte)  
Langilea

Gehiegi da orain eskatzen ari diren neurri txikiak.




**Justina Gisasola**  
(74 urte)  
Erretiratua

Ondo iruditzen zait. Agian ez du arazoa konponduko, baina hobeto dago.



**Juli Pinto**  
(70 urte)  
Erretiratua

Modu honetan, argalak egotearren neskakilak ez gaitotzea lortzen bada, ados nago.



**Vitoriano Hilera**  
(79 urte)  
Erretiratua

Neska larregi gaixotu egiten da argal egon nahi duelako. Agian 40tik beherako neurria ez bada onartzen, ez dira gaixotuko.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**Pavimentos AGR**  
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

## Pavimentos AGR

ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



**Txitxinpe**

Berezitasunak

Kazulatuak

Otarako hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



# 26

## ostirala

### ■ ZINEA

*La delgada linea roja*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

### ■ KONTZENTRAZIO IXILA

"Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza" lelopean, EAJk, EAK, HBk eta EBk, kontzentrazio ixila deitu dute, herriko plazan, 20:00etan.

### ■ KONTZERTUA

#### JAI ZALEN

*Abaddom* bikote arrasatearrak kontzertua eskainiko du Jai Zale tabernan, gaueko 23:30etatik aurrera.

### ■ KONTZERTUA

#### JAM ARETOAN

Bergarako Jam aretoan *Gigatron* eta *Pitaja* arituko dira, *Pitaja* taldeko abeslari izan zena omentzeko. Kontzertua gaueko 22:00etatik aurrera.

### ■ JOKALEKUAK ALOKATZEKO

Musakola eta Iturripe kiroldegietako pilotalekuak, futbol tenis eta eskuasheko jokalekuak alokatzeko bilera egingo da Musakolako kiroldegiko bulegoetan, 11:00etan.

### ■ MASAJE IKASTAROA

Arrasate Yoga elkarteak "masaje sentimen gestaltiko" ikastaroa antolatu du. 10:00etan hasi eta 14:00ak arte. Arratsalde, berriz, 16:00etatik 20:00etara izango da, elkartearen egoitzan.

### ■ KONTZERTU TRUKAKETA

Arrasate Musikaleko *Banda Txikiak* eta Usurbilgo *Zumarte* Musika Eskolako orkestrak emanaldia eskainiko dute herriko enparantzan, 12:30etan. Eguraldi txarra eginez gero, kontzertua Arrasate Musikalen egoitzan izango da.

### ■ PRESOEN ALDE

"Euskal Presoak Euskal Herrira" leloa duen kale agerraldia antolatu du Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak. Kale agerraldia 19:00etan izango da, herriko plazan.

### ■ TRONBOI KONTZERTUA

Arrasate Musikalek tronboi kontzertua antolatu du. Emanaldia egoitzako areto nagusian izango da, 19:00etan.

### ■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

*Señor No*, *Discipulos de Dionisos* eta *Oscuros* taldeek emanaldia eskainiko dute gaztetxean, 22:00etan.

### ■ KONTZERTUA JAM ARETOAN

*One Mitune Silence* eta *Hissopus* taldeak arituko dira Bergarako Jam aretoan gaue-

ko 22:00etatik aurrera. Sarrera aurrez 2.200 pta. Bestela 2.500 pta.

# 28

## igandea

### ■ ZINEA

*Jack Frost*, Alai zineman, 17:00etan.

*La delgada linea roja*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

### ■ TXIRRINDUZALEEN IRTEERA

Arrasate, Kanpanzar, Durango, Goiuria, Elorrio eta Arrasateren arteko ibilbidea egingo dute herriko txirrin-duzaleek. Irteera goizeko 10:00etan izango da.

### ■ DOKE TXAPELKETA

Haurrentzako doke txapelketa egingo da goizeko 10:00etatik aurrera, Monte-rongo zelaian.

### ■ MASAJE IKASTAROA

Arrasate Yoga elkarteak "masaje sentimen gestaltiko" ikastaroa antolatu du. Goizeko 10:00etan hasi eta 14:00ak arte. Arratsalde, 16:00etatik 20:00etara izango da, elkartearen egoitzan.

### ■ KULTUR ERROTA

AED elkarteak Koldo Ameztorein ipuin saioa helduentzat, eta Mai Gorostia-garen bakarriketa antolatu du, Kultur Errotaren egitasmoaren barruan. Amaia antzoki-ko atarian. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Sarrera 300 pta kostako da.

# 29

## astelehena

### ■ ZINEA

*La delgada linea roja*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

### ■ ODOL EMATEA

Anbulatorioan izango da, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

### ■ KULTURA JARDUNALDIAK

San Andres Herri Eskolak 1999ko Kultura jardunaldiak antolatu ditu. 09:30etan ikasketxearen apainketa egingo dute haurrek eta lehen hezkuntzako neska-mutikoeak. 11:00etan antzerki eta abestien tarteak izango da. 14:45etan, mahai jokoak eta ipuin lantegiak. Baita mahai jokoak eta bideo emanaldia. 15:45etan, ipuin irakurketa haur hezkuntzako haurrentzat eta 17:00etan, antzerkia eta abestiak, gurasoei zuzenduta, 1., 2. eta 4. mailako ikasleek antzetzuta.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 26  
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin

Larunbata, 27

• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina

Igandea, 28

• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde

Astelehena, 29

• Gauez eta egunez: Ruiz, Maala

Astearte, 30

• Gauez eta egunez: Morales, San Andres

Asteazkena, 31

• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

Osteguna, 1

• Gauez eta egunez: Amezua, Santamina

# 27

## larunbata

### ■ ZINEA

*Jack Frost*, Alai zineman, 17:00etan.

*La delgada linea roja*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.



# 30 asteartea

# 1 osteguna

## ■ ZINEA

*La delgada linea roja*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

## ■ ODOL EMATEA

Anbulatorioan izango da, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

## ■ KULTURA JARDUNALDIAK

San Andreseko Kultura jardunaldien barruan: 10:00etan, panpin, lepoko, haizerrota eta bestelako lantegiak, maila guztientzako haurrentzat. 14:45etan, Jose-rra Agirreurreta ipuin kontalariak ipuin saioa eskainiko du. 15:30etan, Asun Agirianok, Monterroneko liburutegiko arduradunak ere ipuin saioa eskainiko du. Ipuin lantegiak eta bertsoaritzak ere jorratu-ko dira.

## ■ TXATXILIPURDIREN BATZAR OROKORRA

Txatxilipurdik batzar orokorra izango du Pablo Uranga kaleko egoitzan. Arratsaldeko 18:30etan lehen deialdia eta 19:00etan, bigarrena. Iazko jardueraren eta 99ko ekintzen berri emango dute arduradunek, bai eta Txatxilipurdiren egitura berria azaldu ere.

## ■ ZINEA

HBk bideo emanaldia eta eztabaida antolatu du "Lizarr-Garazi bidean" izenburupean. Monterronen, arratsaldeko 19:30etan.

## ■ ODOL EMATEA

Anbulatorioan izango da, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

## ■ KULTURA JARDUNALDIAK

San Andreseko Herri Eskolak antolatuta, 10:00etan hasita, jolas tokia irekiko da haur guztientzat.

## ■ ABIALDIA DONIBANEN

Jarraik antolatu duen Abialdira joateko aukera izango da apirilaren 1etik 3ra bitartean. Autobusa eta egonaldia, Donibanetik Donostiara bitarteko ibilbidea egiteko, 5.000 pta kostako da. Donostiako ekitaldira joateko ere autobusa egongo da. Bietarako txartelak Irati tabernan salgai.

## ■ OSASUNA LANTZEN

Osasunari buruzko monografikoa antolatu dute Institutuan martxoaren 29, 30 eta 31n. Athlon, Lokarri, Akabe, Alkoholzale Anonimoak, Gurutze Gorria, Aesleme eta Arrasateko HIES Ekimenak osasunaz hitz egingo diete DBHko eta Hasaol-go ikasleei. Goizez zein arratsaldez kurtso bakoitzak hitzaldi bana izango du, HIESa, bizkar-muin eta burmuineko lesioen prebentzioaz, oinarrizko sorospenak, alkoholaren kontsumoaz, anorexiaraz eta drogomenpekotasunaz. Hitzaldiak goizez eta arratsaldez izango dira. Hitzaldiekin batera, kirol eta osasun lantegiak izango dituzte.

## ■ UR ETA ZABOR ZERGA

Maiatzaren 15ean amaituko da 1998ko laugarren hiru-hilabeteko ur eta zabor zerga ordaintzeko epea. Egun horretatik aurrera ordainagirik %20ko igoera izango dute.

## ■ KARIBEKO DANTZAK

Gazte Bulegoak Karibeko dantzen ikastaroa antolatu du hastapen mailan, apirilaren 19tik maiatzaren 19ra bitartean. Maiatzaren 24tik ekainaren 21era bitartean, berriz, sakontze maila emango da. Ikastaroa Julio Lantiguak zuzenduko du eta saioak astelehenetan eta asteazkenetan izango dira 19:30etatik 21:30etara, Musakolako Gazte Txokoa. Berri gehiago 943 77 00 65 zenbakian.

## ■ ZERGADUN GUZTIEI

1999ko Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu denez, ordainagiriak 1999ko maiatzaren 10a arte ordaindu ahal izango dira udaletxeko bulegoetan edo edozein banketxetan. Aipatutako egunetik aurrera, ehuneko hogeiko gainkarguaz ordainduko dira.

## ■ IKASTARO UGARI

Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruak ikastaro ugari antolatu ditu. Lana, gizarte eta kultura, artea, osasuna eta bestelako arloak landuko dituzte ikastarootan. Izen ematea martxoaren 31n amaituko da. Ikastaroak, berriz, apirilaren 12an hasiko dira.

## ■ SEXUALITATE LANTEGIA

"Emakumeak eta gizonak, nolako desioak, nolako kontraesanak" izena duen sexualitate lantegia antolatu dute Gazte Bulegoak eta Emakume Sailak. Ikastaroa apirilaren 20a eta 27a bitartean eta maiatzaren 4a eta 11 bitartean izango da. Izen ematea martxoaren 31 arte.



**USTEAK USTE**

*Talde lana*

**O** talora Prestakuntza Zentroak Sergio Escariolo Tau-Baskonia saskibaloitzailearen taldeko entrenatzailea ekarri zuen joan den astelehenean. Talde lanaren inguruan hitz egitera etorri zen. Kooperatibetako exekutibo asko bildu ziren Otalorara hari entzutera.

Escariolo Otalorara? Zer dela eta?, izan zen askoren lehen erreakzioa. Talde lanaz hitz egitera dator. Eta? Esan liteke kirolak eta enpresak ez dutela zerikusirik. Eta ez da horrela. Talde lana esate baterako, geroz eta garrantzitsuago bihurtzen ari da bietan.

Saskibaloitzailearen talde bat osatu beharra du nahi dituen emaitzak lortzeko. Horretarako askotan berak baino gehiago irabaz dezaketek jokalaria ia eta gazteak izango ditu, zein baino zein harroagoak maiz. Nola lortu diziplina, elkartasuna, taldelana... horrelako elementuekin?

Zaila da. Baina Escariolo horretan ari da, gure arteko asko bezala. Denok ere asko dugu ikasteko.

Joxe Aranzabal



## Hamabi urteko iraultza

\* Jose Felix Diaz de Tuesta

**A**rrasaten euskararen kale erabilera bikoiztu egin da azken urteotan. Horixe da, laburbildurik, Arrasateko Udala 1998tik hona urtero egin dituen neurketen ondorio nagusia. Kanean dabilen jendeak euskara edo gaztelania darabilen jakitea da neurketa horren helburua. Hauxe da jasotzen den informazioa: neurketa egiten den leku, egun eta orduetan zenbat erabiltzen den euskara eta zenbat gaztelania.

Aurten ere, aspaldiko hamabi urteotan bezala, euskararen erabilera neurtu du Arrasateko Udalak, esandako metodologiaren arabera. Hauexek dira emaitzak:

- 1988tik hona urtetik urtera Arrasateko kaleetan euskararen ahozko erabilera etengabe hazi da. Gainera, hazkundea handia izan da: 1988ko neurketan kaleko elkarrizketen %11,6 euskaraz ziren; 1999an, berriz, %27,8.

- Kanean euskaraz gehien egiten dutenak 2-14 urteko haurrak dira.

Halaber, beraiek dira euskararen ezaguerarik handiena dutenak: adin horretako bost haurretatik lauk dakite euskaraz.

- Haurren erabilera haztea espero izatekoa zen bezala, poztekoa da gazteen eta helduen erabilera hazi izana: bikoiztu baino gehiago egin da bi adin talde horietako biztanleen erabilera.

- Zaharren erabilerak beheranzko joera du. Izan ere, aspaldiko sei urteotan etengabe jaitsi da eta 1988tik hona 10 puntuko jaitsiera izan du.

Beste alde batetik, aurten neurketa egitean aztertu nahi izan dugu haurrek ba ote duten eraginik helduen hizkuntza jokaeran. Horretara-

**“ Elkarrizketetan haurrek eragin handia dute helduek eta zaharrek erabiltzen duten hizkuntzan ”**

ko, neurketako datuak jasotzean bereizi egin ditugu haurrek parte hartzen duten hizketaaldiak, hau da, haurren arteko hizketaaldiak, haur eta helduen arteko hizketaaldiak eta haur eta zaharren arteko hizketaaldiak besteetatik. Hauxe da datuon azterketatik ateratzen den ondorioa: aurten go datuen arabera, elkarrizketetan haurrek eragin handia dute helduek eta zaharrek erabiltzen duten hizkuntzan. Izan ere, tartean haurren bat izan edo ez, euskararen erabilera ia bikoiztu egin da.

Honeraino euskararen kale erabilerako neurketen emaitzak eta ondorioak. Zeintzuk dira, baina, euskararen kale erabileraren bilakaeraren zergatiak? Eusko Jaurlaritzak 1996an egindako Soziolinguistikako Inkestaren arabera, norberaren harreman sareko euskaldunen dentsitateak eta norberak euskaraz hitz egiteko duen gaitasuna dira euskararen erabileran bereziki eragiten duten faktoreak. Bi faktore horien bilakaera oso positiboa izan da aspaldiko urteotan Arrasaten: haurren eta gazteen euskararen ezaguerara bikoiztu egin da 1981etik hona. Horixe da, nire ustez, hamabi urteotako iraultzaren arrazoi nagusia. Bada besterik, ordea. Zergatik hazi da euskararen kale erabilera Arrasaten beste herri batzuetan baino gehiago? Hori hurrengo baterako utziko dut.

\* Udaleko Euskara teknikaria

**beatriz**  
oinetakoak eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

*Martxan dagoen*  
**TABERNA ALOKAGAI**  
*Uribarrin*  
Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81



astea bi hitzetan

■ **Antzerki jardunaldiak**

San Viatorko DBHko 2. mailako ikasleek eta Institutuko DBHko 1. mailakoek bi antzezlanak eskaini zituzten ostegunean, "Arraintxo" eta "Musu baten bila" izenekoak, hain zuzen ere. San Franzisko Xabier, San Viator eta Musakolako ikasleak izan zituzten ikusle.

Arrasateko Udaleko Hezkuntza Batzordeak eta Kultura Batzordeak antolatutako antzerki jardunaldien barneko azken ekitaldiak izan ziren.

■ **Eroski, orain Consum**

Datorren hiletik aurrera Eroski taldeak Consum izena jarriko die bere supermerkatu guztiei. Horrekin batera, aurrerantzean frankizia sistema erabiliko du. Modu honetan, Consum supermerkatuak ugaltzea

lortu nahi da. Honela, edozein dendarik egin dezake tratua Eroskirekin. Denda berria dendariarena izango litzateke, baina izena eta beste hainbat gauza Eroskirenak.

Honetaz gain, Erosle eta Charter izenarekin dituen autozerbitzu guztiak Charter izenarenpean batu-ko dira.

■ **Udal arkitekto berria**

Dagoeneko izendatu dute udal arkitekto berria. Andoni Larizgoitia da bere izena, mungiarra da eta astelehenean hasiko da lanean.

Guztira hiru pertsona aurkeztu dira arkitekto lanpostua betetzeko. Urtarrilaren amaiera aldera azterketak egiten hasi eta bost frogaren ostean, Andoni Larizgoitia izendatu dute udal arkitekto.

■ **Nagusilan**

Atzo Nagusilan erretiratu-taldea aurkeztu zen lehenengo aldiz Arrasaten ICTEk antolatutako hitzaldi baten bitartez. Euskal Herrian pertsona ezinduak zaintzen aritzen den talde honek bere ezaugarri eta egitasmoen berri eman zuen. Aldi berean, Arrasaten taldea sortzeko nahia jakinarazi zuen.

Nagusilan erretiratu dauden pertsona nagusiek osatutako taldea da. Guztiak borondatezko lana egiten dute eta ahal edo nahi duten denbora ematen dute honetarako. Modu honetan, bakarrik dauden pertsona nagusiekin hitz egin edo bere kabuz baliatzen lagundu, alfabetatu, gazte ezinduak zaindu edo espetxean daudenak bisitatu eta antzekoak egiten dituzte.

“ (Kooperatiba izatea lagungarri eta oztopo da). Oztopoak gainditzeko bide nagusia MCC korporazioan egotea da. Gero, bazkideak izatea oso garrantzitsua da, gure kasuan Mabe edo Vaillant bezala. Kooperatiba batentzat oso zaila da beste enpresa batekin elkartzea. Baina erraza da bazkide batekin enpresa berri bat sortzea, eta hori hazteko bide bat da.

Bestalde, kooperatibak izanik, abantaila izugarriak ditugu. Gauzak ondo ez dabiltzanean, kooperatiben barruan izugarriko indarra sortzen da egoera txarrak jasan eta aurrera egiteko. Beste enpresetan, zailtasunen aurrean, errazena murrizketak eta salmentak egitea da. Gure kasuan, horrelako gauzak egiteko borondaterik ez dugu; beti irtenbide berriak asmatzen dira arazoei aurre egiteko”.

**FERNANDO GOMEZ-ACEDO**  
Euskaldunon Egunkaria  
1999.3.20



**FAGOR ARGENTINAN**

Fagor Etxetresnak Argentinako San Luis hirian duen fabrika garbigailuak egiten hasi ziren astelehenean. Aurten 80 lagunek egingo dute lan fabrika horretan eta 35.000 garbigailu egingo dituzte. Datorren urtean 10.000 gehiago eta 2001ean ia 60.000 egitera iritsiko dira.

Fagorrek bi fabrika ditu Argentinan. Bat Buenos Aires hiriburuan eta bestea San Luis hirian. Hasierako helburua da Argentinako merkatua irabaztea, ondoren, Mercosur osatzen duten herrialdeetara zabaltzeko.

**PUB HAIZEA**



**MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



## ESKORIATZA

### ① Ur-ponpategia bukatzeaz

Ganuzia Etxearen pareko orubean egiten ari diren lanak hil honetan amaituko dira. Eskoriatzako kolektorean egiten ari diren lanik handienak dira ur ponpategi berriarenak. Lan hauek egin ahal izateko erreka moztu egin behar izan da. Euria egin duenean lana bertan behera laga behar izan da sortzen ziren putzuengatik.


Lan hauetaz gain, herriko beste hainbat lekutan bestelako lanak egiten ari dira ur zikinak daramatzan kolektorean. Guztira, 253 mila milioi pezeta pasatxo aurreikusi dira kolektorean egingo diren lan guztiak egiteko.

## LEINTZ-GATZAGA

### ② Museoa aldundiko gidan

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Batzordeak Gipuzkoako museoen gida berria plazaratu du. Duela sei urtetik hona egon diren aldaketak jasotzen ditu gida honek. Guztira 24 museoren berri jasotzen du, tartean Leintz-Gatzagan laster irekiko den Gatzari Buruzko Ekomuseoa. Museo honek, besteak beste, putzu gazitik ura ateratzeko erabiltzen zen sistemaren kopia bat eta herrian aurkitutako erromatar zeramika arrastoak izango ditu ikusgai.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gida berri hau 200 pezetatan salduko da. Gidak museoaren ordutegia, telefono zen-



bakia eta datu orokorrak ematen ditu.

## ANTZUOLA

### ③ Idolaz en Batzar Orokorra

Idolaz euskara elkarteak dituen 150 bazkideei Batzar Orokorreko deia luzatu die. Datoren asteartean izango da. Liburutegian, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, hain zuzen ere.

Besteak beste, bazkideen kuotei dagozkien aldaketen berri emango da datorren aste-

ko bilera honetan. Izan ere, orain arte erretiratuek 3.000 pezeta ordaintzen bazuten ere, hemendik aurrera kuota hori langabeen parekora jaitsiko da. Ondorioz, 500 pezeta ordaindu beharko dute. Beste kuota guztiak berdin geratuko dira.

## BERGARA

### ④ Zorionak Aritzetari

Aritzeta abesbatzak 20 urte bete ditu otsailean. Hori dela eta, hainbat ekitaldi egingo ditu ospakizun moduan. Martxoan

ren 27an, adibidez, Mariaren Lagundian arituko da eta hurrengo egunean, berriz, Martuteneko espetxean. Hone-taz gain, uztailaren 17an abesbatzaren inguruko erakusketak izango da Kultura Etxean eta, nola ez, urtero-urtero egiten dituzten makinatxo bat ekitaldi.

## ARAMAIO

### ⑤ Euskara indartsu

Aramaioko Udalak oraintxe eman ditu ezagutzera iaz Siadecorekin batera egindako azterketa soziolinguistikoa-ren emaitzak. Hona hemen nagusiak: Aramaioko bizilagun gehienak, %87, euskaldunak dira; euskaraz ondo hitz egiten ez duen populazioan, %13, erdiak inguru gai dira zerbait hitz egiteko; 30 urtetik beherako bizilagun guztiak euskaldunak dira eta baita 60 urtetik gorakoak ere; populaziorik erdaldunena 31-45 urte bitartekoa da eta erdaldunak batez ere Ibarra kokatzen dira; gehienek, %84, euskara izan dute ama hizkuntza; azkenik, Aramaioko Arabako herririk euskaldunena.

Euskara da aramaiorrek gehien erabiltzen duten hizkuntza, askotan ia bakarra. Euskara indartsu da haurren eta zaharren artean, familian, auzoetan, elkarteetan, irakaskuntza arautuan. Badira, hala ere, esparru batzuk erdararako joera dutenak: anbulatorio, tabernak eta herriko plaza ordu jakin batzuetan.

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 943 79 26 99

**IRATI TABERNA**  
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82



# Musakolako kiroldegia etorkizunera begira

Musakolako kiroldegia goitik behera berrizteko lehenengo pausua eman da dagoeneko: udal teknikariek aurkeztutako aurreproiektua onartu egin du Gobernu Batzordeak. 1.200 milioi pezeta aurreikusi dira lanak egiteko.

Orain dauden instalakuntza batzuk berrizteaz gain, herritarren beharrak asetzeko berriak ere egitea erabaki da. Honetarako, herriko kirol taldeek eta udalak bilera ugari egin dituztela adierazi digu Jose Mari Loiti alkateak. "Modu honetan talde bakoitzaren beharrak jakin izan ditugu eta horien arabera egin da aurreproiektua".

Behin guztia argituta, behar nagusiak kontuan hartu eta ondorengo instalakuntza berriak egitea erabaki da:

- **Atletismoko pista:** atletismo taldearen eskaerari kasu eginez, 400 metroko pista bat egingo da. Atletismorako izateaz gain, pertika jauzia, altuera jauzia, xabalina edo mailu jaurtiketa eta antzekoak egiteko ere erabiliko da pista hau.

- **Errugbi zelaia:** errugbi taldearen aspaldiko eskaera bati



Herritarren beharrak beteko dituen kiroldegí bat izatea nahi du udalak.

erantzuna emanez egingo da. Izan ere, orain erabiltzen duten Garagartzako zelaia oso egoera eskasean dago.

- **Belodromoa:** txirrindulari elkarteak eskatuta, Institutuaren inguruan kokatuko litzateke.

- **Atsedean gunea:** kiroldegian zegoen taberna kendu zenetik, mota honetako zerbitzu bat faltan somatzen da. Hori dela eta, mahaiak, aulkiak, janaridun eta edaridun makinak eta egongela antze-

ko bat izango dituen areto bat jarriko da.

- **Erabiltzaileentzako gimnasioa:** orain aerobic-erako gimnasioa erabiltzen da, beraz, beste baten beharra dagoela ikusi da.

- **Gorputza zaintzeko:** sauna, hidromasajea, dutxa hotz-beroa eta antzeko zerbitzuak eskaini nahi dira.

Honetaz guztiaz gain, beste hainbat lan ere egingo dira. Besteak beste, aldagelak ugaritu eta berriztu, kanpoko ige-

rilekuetako eguzkia hartzeko tokia handitu, eta kiroldegiko jokalekuaren zolua aldatuko da.

Alkateak adierazi digunez, oraindik ez da hasiera epe-rik finkatu, izan ere, aurreproiektua onartuta egon arren, proiektua egin eta gero Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitz egin beharra dago haren parte hartzea eskatuz. Izan ere, "mota honetako proiektu erraldoiak egiteko, aukeran dauden bide guztiak erabili beharra dago".

## Protesta ekintzak

Astlehenean, kale agerraldiak izan ziren Arrasaten Jose Luis Geresta ustezko ETAKi-dea hilik agertu zela salatze-ko.

Batetik, goizaldean Institutuko hainbat ikaslek Eroski pareko biribilera atera eta errepidea moztu zuten. Gerestaren heriotza PPri eta, orohar, estatu espainiarrari egozten zieten kartelak erakutsi zituzten. Errepidea bost bat minutuz egon zen moztuta.

### ERTZAINZA ATZETIK

Ertzaintza agertu zenean handik kentzeko agindua eman zien. Gazteak biribilaren bueltan jarri ziren eta ertzainak gazteak identifikatzen hasi zirenean, liskarra izan zuten, gazte batek bere identifikazioa ertzainarenen truke eskatzean. Jazarpen ikusgarri baten ostean, azkenean Ertzaintzak gaztea identifikatu eta ez zen bestelako istilurik izan.

Bestetik, iluntzeko



Goizeko hamaikak inguruan institutukoak protesta egitera atera ziren.

19:15ean beste kale agerraldi bat izan zen Seberon. Oraingoan Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta, ehundaka arrasatear kalera atera ziren. Gerestaren heriotza

estatu espainiarraren gerra zikinaren baitan kokatu ostean, herriko kaleak zeharkatu zituzten. 20:00ak inguruan bukatu zen kale agerraldia, bat ere istilurik gabe.



## Jaiotzak

- Aitor Mujika Balzategi. Martxoaren 5ean.
- Jone Caballero Najera. Martxoaren 7an.
- Mireia Zalama Carmona. Martxoaren 10ean.
- Uxue Ezpeleta Laskurain. Martxoaren 11n.
- Leire Moreno Barrigon. Martxoaren 16an.

## Ezkontzak

- Jesus Maria Prieto Rodriguez eta Miren Lorea Goñi Uranga. Martxoaren 13an. Elizaz.
- Ruben Alonso Sanz eta Virginia Arriaran Ormazabal. Martxoaren 13an. Zibilez.
- Isidoro Caballero Bravo eta Ana Isabel Casatorre Chamorro. Martxoaren 20an. Elizaz.
- Miguel Angel Hierro Perez eta Maria Jose Boisa Castela. Martxoaren 20an. Elizaz.

## Heriotzak

- Felipe Murgoitio Madariaga. 73 urte. Martxoaren 9an.
- Katalina Urkizu Zabal. 89 urte. Martxoaren 13an.
- Andres Ugarte Zubialdea. 75 urte. Martxoaren 13an.
- Pablo Iñarra Mendizabal. 84 urte. Martxoaren 15ean.
- Soledad Gonzalez Hernandez. 82 urte. Martxoaren 18an.
- Carmen Sologastoa Iriarte. 74 urte. Martxoaren 19an.
- Maria Luisa Iriarte Urrutia. 72 urte. Martxoaren 21ean.
- Emilia Abad Apraiz. 90 urte. Martxoaren 21ean.



Zazpi urtean Arkoren autofinantziazio maila % 14 igo da

# Arkok publizitate agentzia bat sortuko du: Iragarko

Arrasate Komunikabideak elkarteak Iragarko izena izango duen publizitate agentzia sortuko du aurten. Agentzia honek Arrasate Presseko, ATBko eta EAEko udal eskalategien publizitatea, besteak beste, kudeatuko du. Horrela azaldu zen asteartean egin zen batzar nagusian. Arkoren urteko batzar nagusia Mondragon Hotelean egin zen.

Iazko diru kontuen berri ematerakoan, autofinantziazioaren igoera azpimarratu zuten Arkoko arduradunek. 1991tik 1998ra bitarteko autofinantziazioa %41,4 izatetik %56ra iritsi da. Zazpi urtean autofinantziazioa %14 igo da, beraz.

### EGITASMOAK

Hiru lanek markatuko dute urtea: ATB bailarara zabalteko asmoa, publizitate agentzia sortzea eta ATBren X. urteurrena.

- ATB Deba Garaia zabalteza. Arkoko arduradunak Deba Garaiko zenbait

alkaterekin izan dira bailarako telebistaren asmoa aurkezten eta oso harrera ona jaso dute. Batzuk prest agertu dira hitzarmen bat sinatzeko. Arkoren barruan ere hausnarketa egiten ari dira bailarako telebista horren inguruan: edukiak, aurrekontua, baliabideak... zehazteko. Asmo horretan, bidelagun egokituz jo zituzten Euskaltel eta EITB.

- Iragarko. Aurten bertan finkatuko dira agentziaren nondik norakoak. Dagoeneko erabakita dago Iragarko izena izango duela.

- ATBren X. urteurrena. Arkok arreta handiz prestatu nahi du ATBren X. urteurrena, 2000. urteko otsailaren 13an izango dena. Ospakizuna ez da mugatuko egun batera, baizik eta tarte zabal hartuko du, Arkoko arduradunen arabera.

Programazioari dagokionez, berrikuntzak iragarri zituzten: sukaldaritza saio bat, eskelak, urteurrenak, tele-

testu dinamikoa eta ordu gehiago.

- Arrasate Pressen asmoak. Arrasate Presse ere izango du lan franko aurten. Laster aldaketa zenbait egingo dira erredakzioan sarea aldatzeko eta hobetzeko. Aldizkariaren kalitate kontrolerako talde bat sortuko da, hainbat herri aldizkarirekiko elkarlana bultzatuko da eta sakon aztertuko dira, telebistan bezala, Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia Departamentuak egin berri duen inkestaren emaitzak.

### ZUZENDARITZA BERRIA

Arkoko Zuzendaritza Batzordearen erdia berritu egin zen. Hauek dira batzarkide berriak: Edurne Erauskin, Joxemari Muxika, Aitor Orobengoa, Idoia Peñakoba eta AEDko ordezkari bat.

Iazkoa urte ona izan bazen, aurtengoa oparota eta lanez beteaz izatea espero dute Arkon.





## Azken agurra

Bihar iluntzeko 19:00etan Gregorio Canas Esteban zenaren aldeko meza izango da San Joan parrokian. Modu hone-tan, Gregorioren lagunek eta senitartekoez azken agurra emango diote.

Gregorio Canas, martxo-aren 12an hil zen ezbeharrak eraginda. Polmetasan egiten ari diren obretan lanean zebilela, fenwick-a gainera etorri zitzaion eta kolpearen ondorioz, hil egin zen 44 urte zituela. Goian bego.

## Ikerlan pilagintzan

Arrasateko Ikerlan enpresak Donostiako CIDETEC enpresarekin hitzarmen bat sinatu zuen pasa den asteartean Miramongo Parke Teknologikoan. Horren arabera, elektrizitatea sortzen duten pilak egingo dituzte elkarlanean.

Pila hauek duten berritasunik garrantzitsuenak da etekina oso altua dela (%60a inguru) eta gainera pila arruntan aldean, oso gutxi kutsatzen dutela.

Bi enpresa hauek sinatutako hitzarmenaren arabera, bien artean langileak trukatu egin ahal izango dira, biek batera ikerketak egingo dituzte eta baita beharrezkoa den aholkularitza lan guztia.



Ospitalaren erabilera mugatzeaz gain, besteak beste, eraikuntzen garaiera ere mugatu beharko da.

# Diputazioak zehaztasunak eskatu ditu Zerrajerako proiektuan

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu onartu Zerrajerako lurren erabileraren inguruan Arrasateko Udalak eginiko aldaketak. Zuzenketa batzuk egin behar ditu udalak, arau berriak behin betiko onarteko.

Zerrajeran eta inguru horretan ia 120 mila metro karratu erabiliko dira etxebizitzak eta beste hainbat hornikuntza egiteko. Hori dela eta, derrigorrezkoa izan da lur horien arau subsidiarioak aldatzea. Izan ere, legeak halaxe eskatzen du.

Egin ziren arau berrietan lur horiek industriarako barik, etxebizitzak eraikitzeko erabili ahal izango zirela jaso zen. Inguru horretan autobus geltokia jartzea ere pentsatu zen eta Zerrajerako eraikin nagusiaren zati batean Berrilan enpresa kokatuko zela.

Zerrajerako eraikin nagusia Deba ibaiaren gainean dagoenez, Eusko Jaurlaritzak eraikin hori erabiltzeko bai-

menaren epea mugatu egin zuen 2015. urtea arte, ez bada epe hori amaitu aurretik ibaia berbideratu egiten dela.

### OTSAILEAN ALDUNDIRA

Honetaz guztiaz gain, agiriari zehaztasun berriak erantsi zitzaizkion aurtengo otsailean. Hala nola, egingo diren etxebizitza kopurua gehitu egingo dela, espazio publikoa ere handituko dela eta lurren

kalitatea aztertuko dela.

Hau guztiau foru aldundiari bidali zitzaion behin betiko onar zezan. Foru aldundiak, oster, atzeratu egin du onarpena harik eta zuzenketa batzuk egin arte. Batetik, ospitalaren erabilerak gehiago mugatu behar dira. Bigarrenik espazio libreak ugaritu behar dira. Hirugarrenik, egingo diren eraikuntzen garaiera inguruko eraikuntzetara egokitu beharko da. Laugarrenik txostena hilabetez jendaurrean ipini beharko da, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hori dela eta, orain aldundiak eskatutako aldaketak egin ondoren txosten berria udal-txean dago herritarren esku-ra. Hilabeteke epea amaitzen denean, aldundiari bidaliko zaio, behin betiko onarpena eman diezaion.

Dena dela, honek guztiak ez bide du eraginik izango Zerrajerako lurretan egin nahi diren lanetan.

**Behin zehaztasunak eginda, txostena udaletxean egongo da ikusgai, jendeak nahi dituen alegazioak egin ditzan**



# Fagorrek Europako ekialdera zabaldu nahi du

Fagor Elektratresnak kooperatibak Poloniako Wrozamet enpresa erosteko eskaintza egin du enkantean. Erosketa irabaztekoan, Europako ekialdeko merkatura jotzeko aukera handiagoa izango luke Fagorrek, martxoaren 17an Fernando Gomez-Acedo kooperatibako zuzendariak Bilboko Euskalduna jauregian adierazi zuen moduan.

Fagorrek baditu hainbat produkzio fabrika atzerrian. Marokon hozkailuak, garbigailuak eta berogailuak egiten ditu eta Argentinan garbigailuak. Bi fabrika hauekin Afrikako eta Hego Amerikako merkatuak hurbilagoatik jarraitzen ditu.

Ekainean argituko da nork irabazten duen Poloniako Wrozamet enpresaren erosketa. Gomez Acedok esan zuenez, 3.000 eta 6.000 milioi pta.ko kostoa izan dezake. Fagorrek dagoeneko hozkailuak eta garbigailuak egiten ditu Poloniako enpresaren markarekin. Erosteak, berriz, areagotu egingo litzuke Fagorren aukerak Europako ekialdera zabaltzeko.

## IRABAZIAK BIKOIZTU

Fagorreko arduradunek bikaintzat jo zituzten Arrasa-



Fernando Gomez-Acedo, Juan Jose Sanpedro eta Bittor Aranzabal.

teko kooperatibak iaz izan zituen emaitzak. Ez da gutxiagorako, zeren eta 4.200 milioi pta irabazi baitzituen, aurreikusitakoa baino 2.450 milioi pta gehiago.

Fagorrek %18,7 gehitu zituen salmentak, 102.226 milioi pezetaraino. Horietaatik %37 esportazioei esker irabazi zituen. Atzerriko merkaturak estatukoa baino azkarrago handitzen ari da Fagorren zat. Hau bat dator zuzendariaren asmoekin: "gure helburua salmenten erdiak Espainian eta beste erdiak

munduko beste lekuetan egitea da".

Gehien saldu ziren produktuak hozkailuak izan ziren: 26.000 milioi pta. Beste 22.000 milioi garbigailuetan. 19.000 milioi berogailu eta aire girotuaren inguruko produktuetan. Gainerako salmentak ontzi garbigailuetan, etxetresna txikietan eta sukaldeko altzarrietan lortu ziren.

Aurten %10 gehiago saltzea aurreikusten dute. Hala ere, merkaturak apalduz doala eta, etekinak 2.790 milioi

pta.koak izango dira.

## BAZKIDE ONAK

Europako ekialdera zabaltzearekin batera, Fagorrek elkarlana bultzatu nahi du Alemaniako Vaillant bezalako bazkideekin. Fagorrek eta Vaillantek Geysse-Gastech izeneko berogailu lantegia dute Bergaran, Elgetara bidean. Las-ter erabateko produkzioan izango da eta urtean 800.000 berogailu egingo ditu. Gaur egun negoziazioetan ari dira Basaurin galdarak egiteko beste lantegi bat zabaltzeko.

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

  
**Zuri Garbiketak**

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

**UGARAN**  
**jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
**ARRASATE**



# Egun guztiak ez dira jai Garagartzan

Hil honen 9a izango zen Paulo Jorge Fernandez Rodriguez (PJFR) eraikitzaileak bere lagun bati deitu zionean, bazihoala esateko. PJFR Garagartzako Istizabalen egiten ari diren etxebizitza familiarren zimentarriak eta hormak egiten ari zen. Antza denez, ezin izan die hornitzaileen gastuei aurre egin eta ospa egitea erabaki du. Oraindik ikusteko omen dago zenbateko zuloa utzi duen.

PJFRdesagertu ostean, bere agindupeko langileek utzi egin zioten lana egiteari. Horrela bada, bi aste-an zehar, igeltseroak geldirik egon dira. Ez, ordea, iturginak eta etxeen estalkiak egiten ari diren Iparaldeko langileak. Hauek

zuzenean kontratatu baitzuten Jai Berri kooperatibak.

## JAI BERRI KOOP.

Orain sei bat urte sortu zen Jai Berri izeneko kooperatiba, Arrasateko 11 familiak eraturik. Beren asmoa zen 13 etxebizitza familiarren egitea Jai Berri base-riaren lurretan. Horretarako erosi egin zizkieten enkantean garai batean SFX Ikastolarenak izan ziren lurak Arrasateko Udalarari. Zati batean Jai Berri kooperatibak egingo zituen etxeak. Beste batean, beste 7 familiak, azken hauek bakoitzak bere kontura. PJFRen ihesak ez du eraginik izan azken hauengan.

Arrasateko jende ezagunak hartzen du parte Jai

Berri kooperatiban. Mondragon Unibertsitateko errektorea, CIMeko zuzendaria eta Anboto inbomobiliariako jabetariko bat, besteak beste.

Badirudi Jai Berri kooperatiba tratutan dela beste enpresa eraikitzaile batekin eta datorren astelehenan hasiko direla berriro lanean igeltseroak eta har- ginak.

Zorrik handienak inguruko harrobiekin, garabi enprekin eta bestelako hornitzaileekin egin ditu. Jai Berri kooperatibako arduradunek ez dute baieztatu edo ezeztatu nahi izan informazio hau.

Antza denez, emaztea eta seme-alabak egoera eskasean utzita alde egin du PJFRk.



## Euroa


### Non jaso dezaket informazioa zalantzak izanez gero?

Arlo praktikoetarako zure bankuan edo kutxan izango duzu behar duzun informazio guztia. Negozioren bat baldin baduzu, bide hau interesatzen zaizu, ganoraz presta zaitez. Enpresarioen elkarteetan eta merkataritza ganberetan ere aurkituko duzu informazioa. Zenbait finantza erakundek telefono bereziak ezarri dituzte era guztietako zalantzak argitzen laguntzeko. Horrezaz gain, Ibai Arte eta Eroski bezalako erakundeak hainbat hitzaldi eta ekitaldi antolatzen ari dira horren inguruan.



**Euro baten balio**

**166,386 pta.**



Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

## LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

**Itaca Zentru Mediku eta Estetiko**

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.  
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98



## AGUR ETA OHORE

Azkenean goizeko 03:50etan iritsi zen Korrika 11 Arrasatera. Sekulako ongi etorria egin zitzaion, zuziri eta guzti. Monterronen txaplieguak, eta kalean jendea oihuka. Kaiku zela babesle, anoi ematea ere izan zuten korrikalariek. Giro aparta, beraz,, nahiz eta lo egoteko ordua izan.

## SORPRESA!

Jose Luis Osinagari: ezetz uste huen baina hona hemen argazkia. Ikusten duan moduan, bi baditiat eta ondo ora-tuta...!



## BADATOZ "ERTZAINAK"

Pistolak hartu, eginkizuna ondo ikasi eta mendian aske utzi zituzten asteartean Deba Garaiko ertzain berriak. Tentazioak produktora egiten ari den telesaileko pertsonaiak Angiozar aldean ibili ziren lehendabiziko kapituluak grabatzen. Aste Santuaren ostean etxean izango ditugu. Adi, beraz!








## TXIKIAK ERE KORRIKA

Arratsaldeko 15:00etan atera ziren herriko neska-mutikoak "1+1= Hamaika, Zu eta Ni Euskaraz". Herria zeharkatu eta plazan sekulako festa izan zuten. Lastima euria egin zuela!





## ESCARIOLO OTALORAN

Sergio Escariolo Tau-Baskoniako entrenatzaile italiarrak asko daki talde lanaz. Joan den astelehenean Otoran izan zen, bere esperientziaren berri ematen kooperatibistei. Askotan hitz egin omen du enpresarioen aurrean, baina beti italieraz. Aurrekoan gaztelaniaz aritu zen, polito.

## KABIDU EZINDA

Su ta Gar taldea bisitan izan genuen ostiralean Gaztetxean. Bi hilabete kontzerturik emateke zeudela eta, urduri samar zebiltzan, baina aizue, igarri ere ez zen egin. Gaztetxea jendez lepo egoteaz gain, sua eta garra igartzen zen jendearen dantzarako gogoan.





# Garizuma: aldi za

**E**uskal Herrian, baserri giroko hainbat lurraldetan, dagoeneko desagertzen ari da txotxongiloak erretzeko ohitura. Zenbait herri eta hiritan, berriz, sardinaren hiletan izaten da mozorro garaiaren eta Garizumaren mugarri.

Hauster egunez hasi eta Bazko igandean bukatzen den epealdia izpiritua garbitzeko hilduma eta penitentzia garai bezala izendatua du elizak. Dena den, luzeegi eta neko-soa ere badenez, gorputzak (herriak, alegia) gizaldi askoren bueltan aldi horrek irauten duen berrogeita sei egunak eramankorragoak egiteko modua bilatu du. Egungo Garizumak antzekotasun gutxi du antzinakoarekin, ordea.

Sasoi batean Garizuman gogoeta eta otoitz ere egin arren, sakrifizio garaia izaten zen batez ere. Haragikeriak eta poztasunak alde batera uzten ziren, eta inauteriekin antzekotasunik ez zuen giroa zen nagusi. Inauterietan jendeak gehiegi ere jaten zuen, eta hori dela eta, Garizuman debozioz baino behar gorriak eraginda egiten zuen askok baraua.

## **BARAU EGUNAK**

Hauster egunarekin hasten da Garizuma. Antzina, zenbait lekutan eguneroko arropak albora utzi eta sakukiz janzten zen jendea egun horretan, eta gorputzak errautsez igurtziz egiten zuten penitentzia. Hauster egunean hasi eta ostiralero, berriz, hainbat kristau familiak baraua egiten zuten, eta gaur egun ere Mondragoeko hainbat familian bizirik

Inauterietako asteartea hartu ohi da, mendebaldeko kultura gehientsuenetan, jaietako epealdiaren bukaera bezala. Inauteriei eta neguko bihotz-gogortasunei agur esateko, balio simbolikoa duen panpin bat erretzen zen leku askotan. Horrek oso bestelako epealdi bati ematen dio hasiera: Garizumari.



SUCD taldeko hainbat kide, 1987ko sardinaren hiletan.

dirau ohitura horrek. Garai bateko baserrietan ere ez zen arrainik izaten, eta haragia gatz bezalako kutxa batzuetan gordetzen zen, hobeto gorde zedin. Garizuma sasoiaren ezin izaten ziren gauza horiek jan, eta morokilak, ogia eta antzerakoez egiten ziren eguneko jatorduak.

Zergatik egukoitzetan, ordea? Jose Mari Astigarraga Arrasateko parrokoak esan digunez, "Jesusen heriotza ere ostiralean ospatzen da, eta gizartea penatua bizi izan den garaietan garrantzi handia ematen zitzaion borrokari, sufrimenduari, pasioari eta heriotzari, herritarrak pasarte horiekin identifikatzen baitziren". Garizuma aldiaren beraz, zortziurren ospatzen dira Ostiral Santura, Jesusen

heriotz egunera iritsi arte.


## **GURUTZ BIDEA**

Gaur egun ere bada Arrasaten bizitzari zentzu erlijioso ematen dioten hainbat familia, eta garai bateko eran ez bada ere, bere zentzu propioa ematen diote Garizumari. Urte sasoi honen etorkizuna, beraz, ez du zalantzan ikusten Jose Mari Astigarragak: "hori erlijioaren araberakoa da. Dударik gabe, lehengo ohiturak ez dira berri-tuko eta XXI. mendearen atarian ez dugu Ertaroko Garizuma egingo, baina Arrasaten Garizumaren inguruko zenbait ekimen indarra hartzen ari dira". Ekimen horietako bat da Gurutz Bidea, Ostiral Santuan egiten dena. Sasoi batean ere egiten zen Gurutz Bidea Arrasaten, Kontzezino kalean dago-


**"Karapaixoa oparitzearena aspaldiko ohitura da hemen. Gainera, orain indarra hartu du berriro, duela urte batzuk galduago zegoen eta"**



# nar berritua



Hiru txorixo eta hiru arrautzadun karapaixoak ditu jendeak gustuko.



XIII. gurutzea, parrokia ostean.

en "Igelaren iturri"tik hasi eta San Josepe ermitan bukatzen zena. Orain dela laupabost urte berritu zen ohitura hori. Sebero Altuben hasi eta Erdiko kalea zeharkatu ondoren Santa Barbaran bukatzen dute ibilbidea. Tartean 14 egonaldi egiten dituzte, eta horiek Jesusen Gurutz Bidea sinbolizatzen dute.

## LORERIK EZ

Elizatik ere lore guztiak kentzen dira Garizuma aldian aus-teritatea islatzeko, eta kolore morea (zailtasun, gogortasun eta larritasunaren kolorea erli-

jioan) nagusitzen da Bazko gaua arte. Organoa ere kantuak laguntzeko baino ez da jotzen, eta "aleluia" kantua ez da abesten, jai giroko kantua baita hori. Garai batean, ordea, ezkontzak ere debekatuta zeuden Garizuma aldi guztian, eta baita bataioak, jai izaera zuten bestelako ekitaldi erlijiosoak, jendaurreko ikuskizunak eta jokoak ere. Debeku horiek hautsiz gero zigor gogorrak ezartzen ziren gainera.

## SARDINAREN HILETA

Arrasaten 1984. urtean hasi ziren ekimen honekin SUDC taldekoak. Ordudunik urtero antolatu dute, hutsik egin gabe. Talde horretako Jesus Mari Arzek jakinarazi digunez, "inauteriaen ostean Garizuman haragia jateko dagoen debekuaren aurrean nolabaiteko protesta egiteko antolatu genuen sardinaren hileta. Arrazoi horregatik erretzen da arraina". Dena den, ohitura hori ez da Arrasatekoa soilik, mondragoetarrei beste hiri eta herri batzuetako hiletak ikusita bururatu baitzitzairen antzerako zerbait egitea.

Egidazuk eta Magusinok egiten dute herriko plazan inauteri egunean erretzen den sardina. Hasieran, ordea, Uribesalgo enpresako langileek zuten ardura hori, eta baita inauterietako karrozak egitearena ere. Egidazu eta Magusino hiru bat aste lehenago hasten dira sardina egiten, Jose Ramon Arkauzek esan bezala, "horrenbeste urtean sardina eginda eskua oso ongi hartu diote zeregin horri eta".

Gauerdian izaten da sardi-

naren hileta. Lehenengo herriko kale nagusienak zeharkatzen ditu prozesioak. Hamabi lagunek eramaten dute sardina bizkarrean, eta horien atzean lore erramuak eramaten dituztenak eta negartsuak joaten dira, beltzez jantzita. Fanfarra ere izaten dute, musika doinuak joaz, laguntzaile gisa.

Bitxikeriarik ere gertatu izan da sardinaren hiletan. "Urte batean —diosku Arzek— hogeiki kilo sardina sartu genituen kartoizko sardinaren sabel barnean. Sua hartu zuenean izugarritzko sardina usainak hartu zuen plaza osoa".

## KARAPAIXOA

Baina, dudarik gabe, karapaixoa da Garizuma sasoiaren arrasatearrek duten bizio eta aldi berean ohitura nagusia. Sorailuzen "olatia" eta Bergaran "garipaua" hitzez ezagutzen dena, aitabitxi eta amabitxiak oparitu ohi diote bere besoe-takoari. Bedoñako Urkimen-di baserriko Joseba Aranak 600 inguru karapaixo eginak izango ditu aurten dagoeneko, guztiak enkarguz. Josebak esan digunez, betidanik egiten du karapaixoa: "nik amari ikasi nion, eta antza denez aspaldiko ohitura da hemen. Gainera, orain indarra hartu du berriro, duela urte batzuk ohitura hori galduago baitzegoen".

Karapaixoa gehienak hiru txorixo eta hiru arrautzakoak egiten ditu Josebak, baina lehen hiru arrautza eta txorixo batekoak egiten ziren gehien bat.

Bada esaera zahar bat "...Garizuma baino luzeago!" dioena. Haatik, aurtengoa ere bukatzeaz dago; bitartean, datorren urtekoari itxarongo diogu, karapaixoa oparitzeko ohiturak bizirik iraungo duela, horixe baitugu Garizumako bizioa. ■

Maider Osa



**Imaagen**  
FOTO

**WU**  
FOTO  
IMAGEN

**Imaagen**  
FOTO  
AMIM

**Imaagen**  
FOTO  
AMIM

**Imaagen**  
FOTO  
AMIM



# AGENCIEN

# IMAGEN

FOTO IMAGEN

FOTO IMAGEN


foto GEN

14 urtean aritu gara argazkigintzan.

Orain, berriztu egin dugu FOTO IMAGEN, zuri zerbitzu hobe eskaintzeko

Zatoz denda berria ikustera!!

**%20ko beherapena  
errebelatuetan,  
apirilean**



- Ezkontza eta jaunartzetarako erreportajeak
- Kalitatezko errebelatuak

Zerkaosteta 5. • ARRASATE  
Tel.: 943 79 66 87





## Nora begira, mutil?

**D**KB eta Fraguél Gol taldeen norgehiagokan izan zen gure argazkilaria joan den asteburuan. Berdindu egin zuten, baina badirudi jokalariek ez zirela gustura gelditu. Argazkian ikus daitekeenez, kexu ugari izan zen eta!

## Laburrak

### ■ BIGARREN ALDIKO LEHENENGOA

Dagoeneko talde bat gutxia dago Zaldibarko futbito txapelketan. E taldeko Ke Oxtias kanpoan gelditu da, joan den asteko partida jokatzera ez zelako agertu. Hemen-dik aurrera beraz, Ke Oxtias taldearen aurka jokatzera tokatzen zaionak 1 eta 0eko emaitzarekin irabaziko du eta, gainera, jai izango du asteburu horretan. Aste honetan Totem

taldeari tokatzen zaio, beraz, atsedena.

### ■ EPAILE BERRIAK

Bigarren aldiaren hasieran txapelketako antolatzaileak epaile gutxi zeudelako kexu baziren, pozik egon daitezke! Izan ere, epaile berriak daude Zaldibarren. Guztira sei epaile arituko dira asteburu honetatik aurrera norgehiagokak epaitzen. Animoak, beraz, adoret-suei: Unai, Aitor, Bittor, Ene-

ko, Raul eta "Kajita"ri, ziur lana izango dutela eta.

### ■ ASTE SANTUAN, JAI

Apirilaren 3an eta 4an, ez da norgehiagokarik jokatu Zaldibarren. Izan ere, apirilaren lehen asteburuan. Aste Santua ospatzen da eta futbito txapelketako arduradunek oporrak hartuko dituzte. Beno, eurek eta jokalariek guztiek, noski!

Hurrengo jardunaldia, lau-

garrena, apirilaren 10ean edo 17an jokatu da. Oraindik ez da erabaki astebeteko edo bi asteko oporrak izango dituzten jokalariek.

Dena dela, *Arrasate Press*-ek oraindik oporrak hartuko ez dituzenez, datorren asteko zenbakian argituko dizuegu laugarren jardunaldia noiz izango den.


Ziur gauden gauza bakarrak, apirilaren 3an eta 4an, jai izango dugula denok.

Haurdun bazaude, LAURA da zure jantzidenda.

Udaberriko moda gaztea jatzeko, neurria ez da arazo izango.

Neurririk zabalenak ditugu.

# Laura



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 05 80



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Komando Alpargat	2	1	1	0	9	5	3
Txantxiku Kirolak	2	1	1	0	10	6	3
Branka Taberna	2	1	1	0	12	10	3
Aita Menni 2010	2	0	2	0	6	6	2
Jotakabau	2	0	2	0	4	4	2
Dribling	2	1	0	1	5	7	2
Irati STS	2	0	1	1	3	7	1
Leya	2	0	0	2	7	11	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Aldibi	2	2	0	0	14	3	4
Potroak	2	2	0	0	11	3	4
You Know	2	1	0	1	13	9	2
Garaje Oscar	2	1	0	1	6	11	2
KKJauri	2	1	0	1	7	16	2
Fraguel Gol	2	0	1	1	5	6	1
DKB	2	0	1	1	6	8	1
Koka Juniors	2	0	0	2	6	12	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
AC Surkos	2	2	0	0	13	6	4
Lontxo Taberna	2	1	1	0	14	9	3
Diego Antonio	2	1	1	0	12	9	3
Aurrera Bolie	2	0	2	0	10	10	2
Kamasutra	2	1	0	1	8	10	2
Pepelus	2	1	0	1	7	9	2
Xhasss Ugarte	2	0	0	2	7	10	0
AT Celaya	2	0	0	2	8	16	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	2	2	0	0	22	6	4
Orlando Piratas	2	2	0	0	18	8	4
Insert Coin	2	1	1	0	6	5	3
EPEH	2	1	0	1	10	12	2
Sokoakoak	2	0	1	1	4	5	1
Saukelu Scream	2	0	1	1	3	10	1
Totem	2	0	1	1	7	16	1
Ke Oxtias	2	0	0	2	4	12	0



## Emaitzak

### A taldea

Txantxiku Kir. 5 - Dribling 1  
Aita Menni 4 - Kom.Alpargat 4  
Irati STS 2 - Jotakabau 2  
Leya 5 - Branka Taberna 7

### B taldea

You Know 12 - KKJauri 2  
DKB 4 - Fraguel Gol 4  
Potroak 9 - Garaje Oscar 2  
Koka Juniors 2 - Aldibi 7

### D taldea

AC Surkos 3 - Xhasss Ugarte 2  
Diego Antonio 7 - AT Celaya 4  
Lontxo Taberna 5 - Aurr. Bolie 5  
Pepelus 0 - Kamasutra 4

### E taldea

Orlando Pir. 9 - EPEH 6  
Insert Coin 1 - Ke Oxtias 0  
Naranja Mecanica 11 - Totem 2  
Sokoakoak 1 - Saukelu 1

## Hurrengo partidak

2.aldia  
3. jardunaldia

### Martxoak 27, Larunbata Zaldibar

08:50 Orlando Pir. - Sokoakoak  
10:00 Irati STS - Aita Menni 2010  
11:00 You Know - Koka Juniors  
12:00 Naranja Mec. - Insert Coin  
13:00 Jotakabau - Kom. Alpargat  
14:00 EPEH - Saukelu Scream  
15:00 Garaje Oscar - Fraguel Gol  
16:00 Lontxo Taberna - Diego Ant.  
17:00 Potroak - DKB  
18:00 Txantxiku Kirolak - Leya  
19:00 Dribling - Branka Taberna

### Martxoak 28, Igandea Zaldibar

09:50 Xhasss Ugarte - Kamasutra  
11:00 AC Surkos - Pepelus  
12:00 Aurrea Bolie - AT Celaya  
13:00 KKJauri - Aldibi

Atsedena: E taldea: Totem

## Iruzkina

### Bigarren jardunaldiko emaitzak

Aurreko jardunaldiko balorazioa A taldetik hasiko dugu. Talde honetan Txantxiku Kirolak erre-kuperatu egin dela dirudi. Joan den asteko akatsaren ondoren bere onera etorri da. Dribling taldea erraz hartu zuen mendean. Iparra aurkitu ez duen taldea, Irati STS da. Esnatu egin beharko da azpitxapelduna, atzean gelditu nahi ez badu.

B taldean aipatzeko da You Know taldeak KKJauri taldeari emandako jipoia. 12 eta 2 irabazi zuten.

D taldean AC Surkosek jaun eta jabe segitzen du. Irabazi egin zuen, oraingoan Xhasss Ugarteren aurka. Sailkapeneko lehen tokian dago bakar-bakarrik, Aurrera Boliek azken minutuan Lontxo Tabernaren aurka lortutako berdinketa dela eta.

E taldean ere gol zaparrada izan zen. Naranja Mecanica hamaika gol sartu zizkion Totem Taldeari. Lidergoa lortu du, nahiz eta Orlando Piratasak EPEHren aurka garaipena lortu zuen.



### ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, E.Q. 11 • ARETXABALETA  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26



**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik 8etara.  
Tel.: 943 79 26 99

**LEKIN**  
Ileapaindegia

Jubilatuentzako prezio bereziak

Moztu: 1.000 pta  
Garbitu eta orroztu: 1.000 pta

Erguin, 15. Behea  
Tel.: 943 79 80 23



Senior mailako errugbilaria

## JOSEBA MAIDAGAN

*“Arrasateko talde bat garela kontuan izanda, sekulako liga izan da”*

— **Bigarren gelditu zarete ligan.**

— Arrasateko talde bat garela kontuan izanda, sekulako liga izan da gurea. Gu izan gara harritu garen lehengoak. Iaz talde bera genuen eta ez ginen horren ondo aritu. Mailari eusteko asmotan hasi genuen denboraldia. Baina irabazten hasi ginen eta konturatu ginen gure auke-raz.

— **Iaz baino hobeto aritu zarete orduan?**

— Partida onak jokatu ditugu, baina ez dut uste ezberdintasun handirik egon denik gure mailari dagokionez. Gustura jokatu dugu, nahiz eta kanpoan etxean baino gустurako aritu garen, eta hori pena da.

— **Zergatik diozu hori?**


— Datorren urtean zelaia egoera berdinean segitzen baldin badu, ez dakit jokatu dugun. Zaleak animatzena joan eta gu erabat deseroso aritzea ez da bat ere ona. Sekulako lokatza egiten da. Usteldutako ura dago eta usain txarra dario. Lotsagarria da! Aztertu egin beharko litzateke lokatz hori.

— **Zein partida gogoratzen duzu?**


— Nahiz eta galdu, Hernaniren (liderraren) kontra hemen jokatu genuena. Oso partida ona izan zen eta gutxigatik galdu genuen. Getxoren aurkakoa ere gogorra izan zen. Kanpoan jokaturakoen artean, iaz lehen mailatik jaitsitako Bilboren aurkakoa. Eta azken partida, Eloorrioren aurkakoa.

— **Datorren urtean zer?**

— Piska bat nazkatuta amaitu dugu, zelaia-aren egoera dela eta. Beraz, ez dakit. Mojategi-ko kontu hori gazte mailan jokatzeko nuenetik ari naiz entzuten. Irailean ikusiko dugu.




## ESKUBALOIA Saiatu bai, baina...



Senior mailako Arrasate Eskubaloi Taldeak irabazteko aukera berri bat galdu zuen joan den asteburuan Iturripen. Sestaok izan zuen aurrez aurre. Saillkapeneko azken aurreko tokian zegoen eta Bernardo Balerdiren mutilek aukera bikaina zuten, baina azkenean, eta arrasatearren atezaina fin aritu zen arren, garaipena bizkatiarrek eraman zuten. Arrasate 16, Sestaok 21 amaitu zen norgehiagoka. Asteburu honetan, derbia izango da denboraldia amaitzeko. Izan ere, mondragoetarrek Aloña Mendiren aurka jokatu beharko dute. Igandean 12:15etan, Oñatin.

## TXIRRINDULARITZA Dorletako Ama



Fagor taldeko txirrindulariak Antzuolara abiatuko dira igandean, Uzarragako igoe-  
ra jokatzera. Lehen eta bigarren urteko JMA taldeko haur mailako txirrindulariak, bestalde, XXXII Hesparru proban arituko dira larunbatean, Lazkaon. Bi mailak batera arituko dira lehian.

## SASKIBALOIA Bigarren porrota



Kenci-Arrasate Saskibaloia Taldeak bigarren porrota segidan jaso zuen igoerako kanporaketan Iturripen joan den asteburuan. Arrasatearrak jokalaririk gutxiarekin kantzaratu ziren Leioaren aurka eta

horrek ere eragina izan zuen azken emaitzan. Hiruko jaurtiketa asko egon zen eta 65na berdintzera ere iritsi ziren. Azkenean, ordea, Kenci-Arrasate 71 eta Leioak 81 amaitu zen partida. Aste honetan Bolsos Bergara taldearen aurka neurtuko dira. Hemen ere derbia.

## FUBTOLA Egoera larrian



Preferente mailako Mondraldeak toki deserosoan segitzen du. Izan ere, saillkapeneko azken aurreko tokian dago. Joan den asteburuan ere galdu egin zuten mondragoetarrek Pasaiko taldearen aurka. Lehen gola pasaitarrek sartu zuten. Rubenek berehala berdindu zuen markagailua, baina ondo jokatzeko aritu zen arren, ez zuen Arkaitzen atea aurkitu eta pasaitarrek, ordea, bai. Azkenean 1 eta 2 markagailuan eta hiru puntuak bisitariarentzat.

Asteburu honetan Beti Gazteren aurka neurtu beharko dira.

## ATLETISMOA Gavilan optatloira



Oskar Gavilan Arrasate Kirolak Atletiko taldeko kidea Euskal Herriko txapelketako proba konbinatuetan arituko da asteburu honetan. Probak Gasteizko Mendizorrotzan izango dira, larunbatean bertan. Gavilanez gazte mailako optatloian proban hartuko du parte. Probak honako hauek izango dira: pisu jaurtiketa, disko jaurtiketa, xabalina jaurtiketa, luzera jauzia, pertika jauzia, altuera jauzia, 100 m.ko lasterketa eta 110 m. hesiak.



# Xakelari bikainak Arrasaten

Txema Hernando hirugarren gelditu da Gasteizko irekirik garrantzitsuenean. Bustinzuri irekia Gasteizko Eleazar Ortizek lortu du, baina aipatzekoa da San Andres Xake taldeko kideen parte hartzea. Izan ere, Txema Hernandok brontzezko domina eskuratu du, 5,5 punturekin. Baina lehenengo hamar sailkatuen artean, 10.a ere mondragoetarra da. Josu Tornayk, 4,5 puntu eskuratu ditu, lor daitezkeen zazpietatik. Juan Carlos Mayok, ostera, 4 puntu eta Javier Axpek, berriz, hiru partida irabazi ditu.

Jeneralean parte hartze ona izan dute xakelari mondragoetarrek. Eta horrela iku-



San Andreseko egoitzan jokaturako txapelketa bat.

si daiteke oraintsu argitaratuen Euskal Herriko sailkapenean ikus daiteke. Luis Angel Ortega da sailkapen horretan dagoen lehen arrasatearra, 37. tokian. Tornay, 67. da, Hernando, 129. eta Jose Javier

Vallina, 201.a.

Sailkapenean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 210 xakelari daude. Beraz, Arrasateko xakelariak goi mailako maixuak direla baieztatzeko moduan gaude aurten

izan duten emaitzak ikusita.

## DONOSTIAKO IREKIA

Asteburu honetan ekingo zaio Donostiako nazioarteko irekiari. Mondragoetarrek, ordea, ez dute parte hartzerik izango. Izan ere, oporrak hartzeko erabakia hartu dute. Baina Aretxabaletako xakelariak izango dute ordezkarrizari ere ezagun eta ospetsu honetan. Arrasatearrei dagokienez, hemendik eta denboraldia hasi arte (urrian), lagun arteko irekiak edo partida azkarretako txapelketak jokatu dituzte, ez baitute jokatu sailkapen nagusian eragina izan dezakeen beste-lako partidarik.

## Gorlako XXV Txirrindulari Igoera

Bigarren urtez Juan Manuel Garate, Iberdrola taldeko txirrindulariak irabazi zuen joan den ostiralean jokatu zen Gorlako XXV Igoera.

Born Jay taldeko txirrindulariak ere han izan ziren. Vazquez, Sojo, Askasibar eta Garraus aritu ziren lasterketaren 8,5 km.ak eginen. Gorlakoa lasterketa zaila da oso. Izan ere, km guztiak aldapan gora dira eta 4. km.tik aurrera maldak %12koak dira.

Ihes egin zuen 30 txirrindulariko tropelean, onenak baino ez ziren sartu. 5. km.an Juanma Garatek ihes egin zuen Banestoko eta Kaidu taldeko beste bi txirrindularirekin eta esprintean jokatu zuten txapela. Azkenean Garate gailendu zen, nahiz eta iaz baino denbora gehixeago behar izan zuen.



Juan Manuel Garate.

## LIZARTZAN ZAZPIGARREN

Born Jay taldeko txirrindulariek beste hiru lasterketa izan zituzten asteburuan. Eta hori igarri egin zen igandean jokatu zen Lizarrako lasterketan, nahiko panggal ibili zirena eta.

Lizartzan eta Oteizan, ordea, ondo aritu ziren. Jon

del Rio zazpiarren izan zen Lizartzan, ihesaldiz jositako lasterketa batean.

Larunbatean Laukizen izango dira eta igandean, berriz, Espainiako trofeora puntugarria den Balenziaga sarian, Eibarren. Hauxe izango da trofeo honetarako Gipuzkoan jokatu den azken proba.

## Adi futbolari gazteak

Mondragon Futbol Taldeak apirilaren 6tik 9ra bitartean egingo ditu 1999-2000 urteetarako haur mailako taldeetan jokatzeko hautaprobak. Proba hauetan 1986an jaio-tako edozein gazte ari daiteke. Horretarako egun horietan Atxabalpera joan behar da, goizeko 10:30etan. Parte hartzaileek elastikoak, galtzerdiak, praka motzak eta gomazko botinak eraman behar dituzte.

## Gipuzkoa eta Athletic

Realak antolatzen duen nazioarteko gazte mailako XV Txapelketako partida bat Atxabalpen jokatu da, apirilaren 2an, ostirala. Aurrez aurre Gipuzkoako konbinatua eta Athletic arituko dira. Norgehiagoka arratsaldeko 17:00etan hasiko da.



# JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL (IDAZLEA)

## “Orain konturatu naiz gazte denbo

Aramaion jaio zen, orain 49 urte. Hiru zituela, Arrasate-ra etorri zen. Lehen ikasketak La Mercedeko mojekin egin zituen. Batxilergo osoa Arrasateko San Jose ikastetxean egin zuen lehen promoziokoa izan zen. Bere ametsa kazetari izatea zen, baina garai hartan horretarako falangista izan beharra zegoelako edo, enpresa ikasketak egin zituen Donostian. Gustatu eta ekonomian ere lizentziatu zen.

— Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

— Osaba bat izan nuen, amaren neba, oso gazterik fusi-latu zutena. Jose Mari Azkarraga zen, “Lurgorri” ezizena-rekin idatzi zuena *Egunan*, *Gudarin* eta halakoetan. Hil orduko pertsona inportantea zen. Nik ez nuen osaba eza-gutu, baina idealizaturik nuen, hura bezalakoa izan nahi nuen. Horregatik, lagun batzuekin

elkartu eta don Alvarori eskatu genion, San Jose ikastetxean, euskara irakasteko.

— Luze jo zizun euskara ikasteak?

— Urte luzetan Josemari Arinaizeta izan nintzen: beti ikasten, baina ganora handirik gabe. Bosgarren kurtsoan asko aurreratu nuen Baleren Bakaikoarekin, hau EUTGko ikaslea zela. Ikasketak bukatu eta Beizamako Urki base-rriira joan nintzen, euskaran murgiltzera. Bi egonaldi egin nituen. Euskara ikasi eta 170 behi gobernatzea tokatu zitzaidan. Jainkoak daki zenbat zatza atera nuen nik handik!

— Askok ez dakite gerra ostean zeu izan zinela Arrasatek izan zuen lehen berriemaile euskalduna.

— Chofreko zezenplaza

bota zutela eta, gutun bat bidali nuen *Zeruko Argiara* eta at-era egin zidaten. *Mendiaga* ezizenarekin izenpetu nuen (Mendizabal-Azkarraga, hori zen *Mendiaga*). Inork gutxik zekien nor zen Mendiaga eta horrek ausardia eman zidan. Kronikak bidaltzen nituen, baina denetik idazten hasi nintzen: haur antzerkiaz, bertsoaritzaz, ekologiaren gainean...

— Jokin Zaitegiren oso laguna izatera iritsi zinen.

— Lehen aldiz euskal literaturaz hitzaldi bat emango ote zuen joan nintzaion. “Lurgorriren lobarri nik ezin diot ezetzik esan”, erantzun zidan. Harrezkero sarri egoten ginen. Sebero Altube enparantza inauguratu zenean, berak eskatu zidan haren mendeurrenerako hiru urte falta zirela eta, Seberoren biografia idazteko. 1979ko neguan Seberori buruzko liburua aurkeztu nuen Arrasaten. Zoritxarrez, Jokinnek ez zuen liburua ikusi, uda hartan hil baitzen. Berari buruz ere asko idatzi nuen.

— Zeruko Argian, Deian, *La Hoja del Lunes*en, *Arrasate Press*en, Euskaldunon *Egunkarian* eta *El Diario de Alavan* idatzi izan duzu, beti euskaraz.

— Hor eta beste leku



“Orain 1915-1920 urteak lantzen ari naiz Jesus Trincadorekin, gerra garaitik Urugain bizi den arrasatear sozialista batekin”



# ako lagun asko euskaldunak zirela”

askotan. Tranpolinik handiena *La Hoja del Lunes* izan zen, asko irakurtzen baitzen. Juanito San Martinek sartu ninduen han. Artikuluak euskaraz eta gaztelaniaz ateratzen ziren. Ehun bat idatzi nituen eta, lehena izan ezik, gainerakoak Araba ezagutarazteko aprobetxatu nuen. Ezaguna egin nintzen. Euskal Idazleen Elkartearen sorreran parte hartu nuen eta idazkari izendatu ninduten. Baita euskaltzain urgazle ere, 1983an. Handik puntuko Garaikoetxeak Eusko Jaurlaritzara eraman ninduen, Kultura sailburuorde,

Pedro Migel Etxenikereren aginduetara. Gobernua aldatu zenean, Cerrajerara itzuli nintzen.

— **Gerra denborako euskaltzaleen belaunaldi galdua eta ondorengo euskaltzaleen arteko lotura egin zuen katebegia zara.**

— Benetako zubia Jokin Zaitegi izan zen eta haren beginina nintzenez, neuri ere tokatu zitzaidan horrelako zerbait izatea, ezer baino gehiago itsuen herrian begibakarra nintzelako. Sinestezina dirudi, baina orain konturatu naiz orduko lagun asko euskaldu-

nak zirela. Pentsa zernolako girotan bizi ginen gu.

— **Arrasateko kronikagile izaten segitzen duzu. “Nire Haurtzaroko Arrasate”k izango du jarraipenik?**

— Bai. Laurogeigarren hamarkadari buruz ez dut idatziko. Hor dago *Arrasate Press*. Aurreragoko garaiei buruz, ez dago ia ezer. 1915-1920 urteak lantzen ari naiz Jesus Trincadorekin, gerra garaitik Urugain bizi den arrasatear sozialista batekin. Arrasateko ekintza gizon baten oroimenak izango dira.

— **Nolakoa da Eusko Ikaskuntzaren eragina euskal gizartean?**

— Txikia. Sasoi batean eragin izugarria izan zuen, jendea konbentzituago zegoelako lan egin behar zela kultura konbergentzia lortzeko. Laurogeita hamar urte geroago, helburu berbera du: Euskal Herriaren nortasuna finkatzea. Politikoei ez die grazia-rik egiten kontrolatzen ez duten erakunde bat. Zergatik ez dute Udalen Biltzarra edo antzeko zerbait egiteko Eusko Ikaskuntza erabili, Lehen Errepublikan bezala? ■

Loramendi-N  
UDABERRIAZ  
JANTZI!!

TRAVEL CLUB  
Comprar y Disfrutar

6015470 142031342 2

e-mail: loramendi-k@jet.es



# Ikastaro berriak Familia eta Gizarte Heziketarako zentruan

Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruak hainbat ikastaro antolatu ditu datorren udaberrirako. Ikastaro horiek hiru txandatan emango dira: farfalgintza, disko dantza eta adimen lantegiak goizeko ordutegia izango dute, 09:30etan hasi eta 12:00ak artekoa. Loragintza, jantzigintza eta konponketak eta bizkar hezurreko gilarren indartzeari buruzko ikastaroak arratsaldean izango dira, 15:30etan hasi eta 18:00ak arte. Apainketarako oihalgintza eta geriatría ikastarok, berriz, 18:30etan hasi eta 21:30ak arteko ordutegia izango dute.



Loragintzaren ikastaroan ere izan ziren zenbait gizon, eta dantzan ere badihardu batek edo bestek.

## ERAKUSKETAK

Zentruan egindako lan guztiakin Gabonak inguruan erakusketa bat egiten dute (aurten Monterron jauregian), eta sanjuanetan margolaritza lehiaketa ere antolatzen dute.

Urte osorako programa egituratuta izaten du zentruak, baina hiruhilabetero beharren arabera jarduera berriak ere antolatzen dituzte.

Karmen Zubillagak adierazi digunez, "jendeak harreara ona izaten du eskaintza berrien aurrean. Jendearen artean giro berezia sortzen da, gainera, eta bidaiak eta antzerakoak ere egiten ditugu".

Ikastaro horiek apirilaren 12an hasiko dira, eta sanjuanak arte iraungo dute. Izena emateko epea, aldiz, martxoaren 31n bukatuko da.

## ETENGABEKO HEZIKETA

Familia eta Gizarte Heziketarako Zentrua orain 26 urte sortu zen Arrasaten, eta orduanik hainbat ikastaro antolatu ditu. Zentru horretako zuzendariorde Karmen Zubillagak jakinarazi digunez, "zentruaren helburua etenga-

beko heziketa eskaintzea da. Dena den, gure jarduera hezitzailearen jasotzaile nagusiak emakumezkoak izaten dira, emakumei benetako aukera berdintasuna eskaini nahi baitiegu".

## GIZONAK ERE BAI

Ikastaroetan gehienak emakumeak badira ere, gizonezkoek ere hartzen dute parte zenbait jardueratan, jostintza, lisatzea eta garbitasunarekin lotutakoetan batez ere.



I. URTEURRENA  
UNAI ZUBIKARAI  
AUZMENDI

ZURE LAGUNEN PARTETIK

## KIROL ZERBITZUEN ESKAINTZA

AUKEA Kirol Erakundeak ondorengo zerbitzuak bete behar ditu:

**Salbamentu, Sorosle eta Igeri ikastaroak emateko zerbitzua**

**Informazioa eta dokumentazioa non eskuratu:**

Musakolako Kiroldegian. Tel.: 943 77 16 77

**Eskaintzak aurkezteko epea:**

1999ko apirilaren 12a



ARRASATEKO UDALA

**AUKEA** ■  
**Kirol erakunde** ■



IDOIA IBAÑEZ, FARFALGINTZA IRAKASLEA

## “Oraindik ikasteko asko dudala iruditzen zait”

Idoia Ibañezek farfalgintza irakasten du Gizarte eta Familia Heziketarako zentruan. Dena den, imitaziozko bitxiekin hasi zen artisautzan, eta gero ekin zion harizko eskulanak egiteari. Larrua ere lantzen du, baina guztietatik gustukoena ehungintza du.

— Noiz hasi zinen farfalgintzan?

— Duela 12 urte, Nafarroako Lodosa herrian irakatsi zidan irakasle batek. Oraindik ere eskolak ematen dihardu.

— Erraza da hau irakastea?

— Hasieran beldurra ematen zidan, gauza bat baita farfalgintzako lanak egiten jakitea eta beste bat dakizun hori erakustea. Dena den, ikasleek jakin behar dute farfalgintza irakasteko prozesua oso geldoa dela. Horretaz gain, pertsona batzuei gehiago kostatzen zaie gauzak barnatzea, eta horiekin pazientzia handiagoa izan behar da. Oso jende gutxi egiten du atzera, baina badira ideia jakin batzuekin etortzen direnak eta beste zerbait espero izaten dutenak.

— Egunean zenbat eskaintzen dizkiozu farfalgintzari?

— Astelehenean eskola ematen dut lau orduetan, eta asteartean beste bi eta erdi. Horretaz gain, etxean ere lanak egiten ditut.

— Irakasteko zein prozedura segitzen duzu?

— Hasieran farfail erraz batzuekin hasten gara, niri lanekin hastea gustatzen baitzait. Pasaratze eta orratz lan errazekin hasten gara. Gero bigarren farfailak egiten irakasten diet, eta puntu erdia eta armiarma izenekoak



lantzen hasten gara.

— Badago gizonik zure ikasleen artean?

— Ez, ez dut gizonezko ikaslerik. Ehundegian izan dut mutil bat, eta oso ona zen. Gizonezkoak eskulangintzan ere oso gauza politak egiteko gai dira, baina badirudi ez direla ausartzen. Emakumezkoentzako zerbait bezala ikusten dute ehungintza eta farfalgintza.

— Zenbat denbora behar izaten da farfalgintzako teknikak ongi menperatzeko?

— Nik 12 urte daramatzat honetan, eta aspaldi hasi nintzen irakasten ere. Dena den, oraindik ikasteko asko dudala iruditzen zait. Beraz, pentsa nire ikasleek zer pentsatuko duten...

## aste gazte

### ■ SEXUALITATE LANTEGIA

• Arrasateko Informazio eta Orientazio Sexualeko Bulegoak antolatuta, Agurtzañe Ormazak eta Garbiñe Merinok zuzenduko dute “Emakumeak eta gizonak, nolako desioak, nolako kontraesanak” lantegia. Apirilaren 20an eta 27an eta maiatzaren 4an eta 11n egingo da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Matrikula dohainik izango da. Izenematea Gazte Bulegoan.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Gaztekutxak antolatuta, EEBBetako enpresetan praktikak egin edo zerbitzu enpresetan lan egiteko programara. Enpresen inguruko ikasketak bukatzeaz edo azken bi urteetan bukatuak, ingeles maila altua, 30 urte baino gutxiago izan eta Kutxako bazkide direnzentzat. Epea: martxoak 30.

### ■ LANA

• Turismo teknikaria Santurtziko Udalerako. Epea: apirilak 3.

• Iruñeko Udalerako itzulzaile postua. Epea: apirilak 6.

• Kursaal Elkargunean lan egiteko hainbat postu bete nahi da: kongresuetarako laguntza (azafatak, harreragilea, sarre-ra saltzaileak...), kongresuetarako laguntza teknikoak (soinu, argi eta ikus-entzunezko teknikaria, itzulpenegintza...) eta espektakuluetarako laguntza teknikoak (agertokietan aditua, soinu, argi eta ikusentzunezko teknikaria...). Epea: apirilak 8.

• Iruñeko Udalerako, auktora berdintasuneko teknikari aholkularia. Epea: apirilak 9.

“Gizonezkoek emakumeentzako zerbait bezala ikusten dute ehungintza eta farfalgintza”

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65



# Irakurtzeak asko balio du

**Haurren heziketan liburuak izan dezakeen egitekoa oso garrantzitsua da; eta ez Lehen edo Bigarren Hezkuntzari dagokienez, baita Haur Hezkuntzari dagokionez ere (0-6 urte).**

Hori dela eta, gaurkoan aholku txiki batzuk eta proposamen bat edo beste ekarri ditugu zuengana haurren irakurzaletasuna bultzatzen laguntzeko. Irakasle Eskolako Nerea Alzola izan da gure aholkularia.

Liburuak gozatzeko sasoi ez da irakurketaren ikasketa sistematikoarekin hasten, baizik eta askoz ere lehenago: haurra lehen pausok ematen, lehen hitzak dastatzen eta lehen irudiak bereizten hasten den une

beretik. Eta une honetan haur txikientzat ezinbesteko objektu estetikoak izatera iritsi da liburua, hots, objektu komunikagarri ordezkaezina.

Hona hemen hainbat liburu gomendagarri:

## 2 URTETIK AURRERA

- **O'Mara**. "Egunon, Gabon" Donostia: Tartalo, 1997
- **Monks, L.** (ilustratzailea) "Nire txanda" bilduma Bilbo: Izar, 1997
- **Steadman, R.** "Hau nire

aita da". Bartzelona: Aliorna, 1987

## 4 URTETIK AURRERA

- "Doña Karmen". Donostia: Erein, 1990 (Ahate bihurturarenak bilduma; 2)
- "Mundu harrigarria" bilduma. Madril: SM
- **Vincent, G.** "Zesar eta Ernestina" bilduma. Bartzelona: Timun Mas


## 6 URTETIK AURRERA

- **Balzola, A.** "Munia eta ilargia" Bartzelona: Destino, 1992
- **MacKee, D.** "Isabelen tripa zaratatsua". Donostia: Tartalo, 1994
- **Wells, R.** "Maxen kamiseta". Madril: SM, 1993

## Aholkuak

- 1- Saia zaitetz haurra lehen urtetik liburuarekin harremanetan jartzen.
- 2- Saia zaitetz, zure gustuko haur liburuak aukeratzeko, haur literaturarekin zerorek ere goza dezakezuelako!
- 3- Saia zaitetz haurrarekin batera zure inguruko liburu dendetara zein udal liburutegietara sartzen, beste zerbitzu lekuetara sartzen zaren bezala.
- 4- Saia zaitetz mota askotako liburuak erosten.
- 5- Adin txiki hauetan, derri gorrez, liburuok helduon presentzia dinamikoak behar du; haurren bizi-tzaren honoan itsatsita gera dadin.

Hementxe duzue, beraz, etxeko txikitxoenen irakurzaletasuna pizteko hasierako urratsen bat zein beste. Liburuak gozatzeko dira eta asko irakasten dute. Orain ahalegintxo bat eginez gero, ikasle askorentzat arazo den irakur ezintasuna konpondu edo behintzat konpontzen lagun dezakezue. Izan ere, esaerak dioen moduan: "ikasten ez duenak etxean, ezta kanpoan ere".



Isabelen Tripa Zaratatsua liburuaren azala

**M** Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

**beinke**

**• ARTEA •**  
Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE

**BASABE  
JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA





David Arzamendi musikazalea.



Korrikan ataratako argazki bat.

# David Arzamendi Aurrez aurre saioan

Aurrez aurre saioan aste honetako gonbidatua David Artzamendi izango da. David oso ezaguna da herrian. 84 urteko mondragoetar honen musika zaleztasuna izugarria da. Parrokiako Koruko organujole laguntzailea izan zen 57 urtean eta Koruko zuzendari gisa ere aritu zen urte askoan. Roneon eta UCEMen

Hetruzen egin zuen lana. Abarroako lehendakari ere izan zen hamar urtez. Beraz, zer esan ugari izango du Davidek asteazkenean, gaueko 21:30etan.

## KORRIKA 99

Aste honetan Korrika pasatu dela aprobetxaturik, ATBn Korrikari buruzko saio bere-

ziak izan ditugu. Aste barruan ikusi ezin izan baduzue, larunbat eta igande honetan izango duzue errepika ikusteko aukera. Benetan, ez galtzeko modukoa!

## OPORRAK

Datorren apirilaren 1etik 9ra bitartean ez da Arrasate Tele-

bistan emisiorik izango. Aste Santuko oporrak direla eta, *Arrasate Press* eta ATBko langileek merezitako oporraldia izango dute. Apirilaren 10etik aurrera, berriz, izango gara pantailetan zuen zerbitzura. Barkatu eragozpenak eta zuek ere ondo pasau!

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 27	ASTELEHENA, 29	ASTEARTEA, 30	ASTEAZKENA, 31	OSTEGUNA, 1	OSTIRALA, 2
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Jolasplast, Musiklasik, Alkatearekin Berbetan, Ekilan eta Astebete.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Astebete errepika.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepasoa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika.)</p> <p>19:30 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen programa. Lehengo programa.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30: Munduari bueltaka.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Munduari bueltaka.</p> <p>20:00/20:30 Berriak.</p> <p>21:30 Aurrez-aurre: Aste honetako gonbidatua David Arzamendi.</p>	<p>13:30: Asteko programarik interesgarrien errepika: Jolasplast, Munduari Buelbaka, Aurrez Aurre eta Korrika 99.</p>	<p>13:30: Asteko programarik interesgarrien errepikapena: Jolasplast, Munduari bueltaka, Aurrez Aurre eta Korrika 99.</p>
IGANDEA, 28					
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Jolasplast, Musiklasik, Alkatearekin Berbetan, Ekilan eta Astebete.</p>					
			<p>Karmele Zuazubiskar.</p>	<p>Gari Kortazar.</p>	



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

• Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.

• Etxebizitza salgai Erdialdean dago, Monterron ondoan. Osorik berrizteko. Oso merke. Tel.: 94 445 96 19.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza eta bungalowak alokagai Oropesan Aste Santu, uztail, abuztu eta irailarako. Interesatuak deitu 964 31 27 34 telefonora. M<sup>a</sup> Angeles Elizondo.

### 4. Errentan hartzeko

• Pertsona bakararentzako teilatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

### 5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatu batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).

• Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Asteazken zehar Cordoba y Oro, 6 - 5. ezkerrean jo edo beste- la deitu asteburuetan 943 88 43 33 telefonora.

• Etxebizitza osatzeko laguna behar da, Jauregi-barri kalean (Erguin). Tel.: 943 79 27 64 (gauzez).

• Gela bat alokatuko nuke erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatu batean. Tel.: 943 71 23 94. (Maddi).

## ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxeak osatzeko
- Bestelakoak

## GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

## DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

## HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Laukalan (Roneon). Tel.: 943 79 01 71. (19:00etatik 22:00etara).

• Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

• Garajea salgai. Bi autorentzako lekua du. 40m<sup>2</sup>. Aldai kalean. Tel.: 945 46 14 78.

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzeko, Uribarri Etorbidean. Tel.: 943 79 35 24.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Lanean dabilen negozioa eskuz alda-

tuko nuke. Tel.: 943 79 47 85.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m<sup>2</sup>ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

• Enpresentzako lekuak dauzkagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pintaketa, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

• Uribarri etorbidean 90 m<sup>2</sup>ko tokia alokagai. Tel.: 943 79 75 37 (Ilunetako 20:00etatik aurrera).

• Lanean dabilen taberna alokatzen da Uribarri etorbidean. Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 89.

• Toki bat alokatzen da Anboto kalean. 75 m<sup>2</sup> ditu. Tel.: 943 79 98 07 (gauko 21:00etatik aurrera).

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Zazpi urteko esperientziaduna lan egiteko prest jateke edo taberna batean zerbitzari bezala. Tel.: 943 77 08 13.

• Neska bat behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 73 82.

• Ingeles eta frantsesezko itzulpenak egiten ditugu. Merke eta azkar. Tokiko profesionalak. Tel.: 943 77 18 23.

• Andra euskalduna behar da prtsona nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska arduratsuak umeak zainduko lituzke. Deitu goizetan edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera 943 71 53 74 telefonora.

### 18. Eskaerak

• Gizonen ile apaintzailea behar da. Tel.: 943 79 84 88.

• Zerbitzaria behar da, asteburuetan taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Sukaldari laguntzailea behar da taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Esperientzia duen andra behar da pertsona nagusi bat zaintzeko. Tel.: 629 26 39 45.

• Emakumea behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 07 33 telefonora.

• Pertsona bat behar da taberna bateko garbitasun lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Pertsona bat behar da taberna batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Fandango eta arin-arin ikastaroa helduentzat. Moises Azpiazu dantza taldeak zuzenduta. Larunbat goizetan 11:00etatik 12:30ak arte. 2.000 pta. hileko. Tel.: 943 76 15 40.

• EGA agiriaren jabe den irakaslea eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 943 79 86 28.

• Margolaritza eskolak ematen ditut, marrazki artistiko eta olio estiloetan. Tel.: 943 79 19 23.



## 21. Eskaerak

• Hiru neskak ingelesezko eskola partikularrak hartuko genituzke. Tel.: 943 79 09 86 (Naiara) eta 943 79 09 71 (Nerea).

• Alemanierako eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 24 18. Amaia.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Citroen Xara 1.600 salgai. 90 cv. Gasolina. Matrikula: SS-AZ. Tel.: 610 64 52 04 (18:00etatik aurrera).

• Ford Escort RS-Turbo, estrarekin, salgai. Matrikula: SS-AG. Tel.: 639 38 87 77

• Renault Super 5 zuria SS-AB salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 68 75.

• Opel Corsa GSI (VI-K) salgai. Tel.: 609 28 65 82 (20:00etatik aurrera).

• Ford Courier 1.800 diesel salgai. Matrikula: SS-AN. Deitu 943 79 82 09 telefonora.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Salgai: gitarra elektrikoa (beltza, hiru pastillak), estalki gogorra (berria), anplifikadorea (Roand markakoa, efektu eta guzti, flangerra adibidez), distorsio pedala, metal zone, guagua pedala (Vox markakoa), kableak, gozagailua. 60.000 pta. Helbide elektronikoa: FD1@decgi.e-mail.com

• Bulego altzariak salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 84 35 (Luis).

• Idazteko mahai txikia bi aulkirekin, bi sofa eta egongelako mahaia salgai. Tel.: 943 79 07 73.

• Bigarren eskuko zeharkaldiko eskiak salgai. Tel.: 943 79 06 33. Iñaki.

• Hordago argitaletzeko "Documentos" liburua 18 liburuki salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 59 43.

• Egongelako mahaia salgai. Berria. 1m. luze, 0,5m. zabal eta 40 cm. garaikoa. Prezioa: 25.000-30.000 pta.. Tel.: 943 77 16 45 (deitu goizean edo gaueko 22:30etatik aurrera. Ostiraletan egun osoan).

• Yamaha piano elektrikoa eta clavinova salgai. CLP-153 S. Hiru urteko bermearekin. Prezioa negoziatze-

ko. Tel.: 943 79 89 57 (Gaueko 20:00etatik 22:00etara).

• Macintosh II CI ordenagailua salgai. 60.000 pta. Tel.: 943 79 71 59 / 943 64 08 57. Gauez.

• Mendiko bizikleta salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 77 03. Jonathan (21:30etatik aurrera).

• Hiru logelako altzari guztiak salgai. Tresillo, sukalde eta hozkailua ere bai. Oso merke. Tel.: 943 79 74 33.

### 27. Erosi

• Egoera onean dagoen ordenagailua interesatuko litzaidake. Hainbat programa instalatuta eta inpresora badauka, hobe. Windows 98 -Excel 97. Tel.: 943 78 35 14.

### 29. Eman

Sofak oparitzen dira. 2 modulo, bien artean 2,35 m. okupatzen dute. Tel.: 943 77 16 45. Edozein ordutan, edo mezua utzi.

### 31. Galdu

• Larunbatea urrezko eraztun-zigilua galdu nuen, SC siglekin. Barrualde-

an Vicente eta 11-3-99 data dauzka. Tel.: 943 79 85 81. Sarituko da.

### 32. Aurkitu

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

### 33. Bestelakoak

• Larunbatean, eta gura barik, nirea ez den jaka bakeroa eraman nuen etxera. Nirea eraman zuenak, mesedez, dei egin diezadala 943 79 59 40 telefonora, eta horrela trukatu egingo ditugu. Elena.

• Bolinete errotako argazki bat lortu nahi nuke, kopia bat ateratzeko. Tel.: 943 72 55 92 / 609 55 08 40.

## HARREMANAK

### 37. Bestelakoak

• Orrialede hauetako irakaskuntza saileko eskaeretan agertzen den "gaztelaniazko eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora.

txuntxu berde



Maabako Arrababa 23. Arrasate. t. 943 771847.

Umeen Ginetakoak





**M**artxoaren 27an Osiñatarrek bazkari mundiala dute Mondragon Hotelean. Izan ere, 165 inguru senitar-teko dira eta horrelakoetan zaila izaten da elkar ezagutzea; hori konpontzekotan elkartuko dira bihar.

Bazkarira joan aurretik, meza izango dute San Isidro elizan, familiaren oroimenez. Ondoren, argazki bat aterako dute Hoteleko eskaileretan. Hori dela eta, Osiñatarrek ekarri ditugu gaurkoan geurera. Familia honen lehenengo belaunaldia, hain zuzen ere. Argazkia 1943. urtean ateratakoa da, Osiña baserriaren

aurrealdean bertan. Agertzen diren hamahiru pertsonetatik zortzi bizirik daude oraindik.

Dagoeneko argazkiko Osiñatarrek IV belaunaldia erein dute, izan ere, familiak bi jaioberri ditu orain.

Goiko ilaran zutik daudenak, Ines, Asun, Bixente, P. Juana P. Klara, Dionisia eta Maria Pilar dira.

Bigarren ilaran zutik, Damiana, Segundo, Maria, Felix eta Paskuala.

Azkenik, jarrita daudenak, Bixenta (ama), Prudentzio eta Juan (aita) dira.

-----  
*Argazkia eta berriematea:  
Jon Zeziaga.*



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* **Elektragaiak**
- \* **Instalazioak**
- \* **Automatismoak**
- \* **Proiektuak**
- \* **Argiztapena**
- \* **Bobinaketak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



## BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) • Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

# LORE

LURRINDEGIA

Udaberrian  
eman freskotasuna  
zure gorputzari

VALMONT

Ayer

BIOThERM

CLARINS  
PARIS

HR  
HELENA RUBINSTEIN

Olarte, 10  
ARRASATE  
☎ 943 79 52 50





auto fidagarri, seguru, dinamiko,  
berritzaile, zabal, jostagarri eta,  
nortasuneko bat nahi duzu.  
eta aurkitu duzula uste duzunean,  
focus agertzen da.

zeren eta zu zerbait  
**gehiagoren** bila baitzabiltza

# Multi Opcion

ford**focus** berria

“Erabiltzaile eta  
Kontsumitzaileen  
Erakundeak (OCU), “crash  
test” delakoaren bitartez  
egindako ikerketaren  
arabera, Ford Focusesk  
puntuaziorik altuena  
lortu du segurtasunean,  
beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko  
2.064. alean argitaratua

Audi A3 \*\*\*\*  
Ford Focus \*\*\*\*  
Mercedes Clase A \*\*\*\*  
Opel Astra \*\*\*\*  
Renault Mégane \*\*\*\*  
VW Golf \*\*\*\*  
Citroën Xsara \*\*\*  
Peugeot 306 \*\*\*  
Toyota Corolla \*\*\*  
Daewoo Lanos \*\*\*  
Honda Civic \*\*\*  
Fiat Brava \*\*  
Ford Scort \*\*  
Hyundai Accent \*\*  
Mitsubishi Lancer \*\*  
Nissan almera \*\*  
suzuki baleno \*\*



zegoenarekin etsi beharrean zinean, zerbait gehiago aurkitu duzu. gehiago, ford focus berriaren kanpo diseinua, eta barrukoa, zabalagoa, dena esku-eskura jartzen dizuna. gehiago, bai eta jokaera egonkor, zehatz eta zalu bai ere. bere 1.6ko (16v eta 100 ZP) aluminiozko motorrarekin, harritu egingo zaitu prestazioetan eta kontsumoan, eta gainera, gidariaren eta ondokoaren airbag-a dakarte guztiek. oraintxe alegatu da ford**focus** berria, zure itxaropen-muga betiko aldatu duen autoa.

ford focus trend, 16v 100ZP, 2.000.000 pezeta (jendearentzako prezio gomendatua, lantak aparte))  
informazioa eta proba:

**Automóviles Mugarri**  
Araba Etorbidea, s/n  
ARRASATE-MONDRAGON  
Tel : 943 79 75 64

